

Kolazinoko Mendi Egun arrakastatsua espero da

Hamargarren edizino honetarako aspaldi saldu dira dorsal guztiak eta 650 parte-hartzaile egongo dira. Euskadiko Txapelketea zein Euskal Herriko Kopea egongo dira jokoan Bedian martiaren 14ko lasterketetan. Lasterketa eta martxa nagusien hurrengo egunerako, antolatzaileek txikerrenentzako lasterketak be antolatu dabez. Izen-emotea doban egin daiteke sportsmaniacs.com webgunean. **18. orrialdea**



M8: beste mundu bat feminismotik

Andra Langilearen Nazinoarteko Egunean manifestazinoa egingo da Igorren, herri bakotzeko blokeak 12:00etan helduko dira Kultur Etxera eta bertatik hasiko da manifestazinoa; "Beste mundu bat feminismotik. Zapalkuntza sistemen aurrean: antolakuntza eta borroka" lelopean. Udalek eta Arratiako Mugimendu Feministak ekintza ugari antolatu ditu, aurretik zein atzetik. Aurreko egunean, Arratiako gazte feministek III. Ganbara Feminista ospatuko dabe Areatzako Laminetxe Gaztetxean. **9. orrialdea**



ZEANURI

Etzanderak jantza taldearen atzen emonaldia

Zeanuriko Udabarria Loran egitarauaren barruan, herriko andrekin osotako Etzanderak-ek atzen jantzaldia egingo dau martiaren 7an. Taldeak hamabost bat urte daroaz martxan eta Akaberea da-ta... ikuskituna, aurreko lanetako jantzen bildumatxo bat izango da. **20. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Greba orokorra martiaren 17an

ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek greba orokorrerako deia zabaldu dabe, beste erakunde sozial eta politiko ugariak babestu dabena. Lanbide Arteko Gitxieneko Soldata Hego Euskal Herrian ebatzi eta hau 1.500 eurokoa izatea dira aldarrikapen nagusiak. **6. orrialdea**

ARTEA

Kokomarroak kalejiran, Kuberue sutan



Aratusteetan Arteko Kokomarroek barriro hartu ebezan kaleak eta Kuberue sutara kondenau eben. Ikusi argazki bildumea barruko orrietan. **13. eta 14. orrialdeak**



Literatura txokoa

BESTE ZERBAIT

Tituluak dinoan moduan liburu hau beste zeozer da generoari jagokonez. Idazleak berak nobela mutantea dala dino. Nik neuk ez dakit...

Baina egia da lantzean dauan bideak zeozelan bat egiten dauala kontau gura dauanagaz: zelan garatuten dan kuir izake-rea testuinguru tradizional eta heteronormatiboan. Kuirrak generoari jagokonez periferiako eta ez-normatibo izentatzen diran modu berean garatzen da kritika tradizionalen nobelatzen hartuko ez litzakeen liburu hau. Ildo beretik, apurtu egiten dau forma/eduki dikotomia be, biak maisuki nahastuaz. Kapitulu bakotxaren hizkuntza-erregistro aldaketak ezeze bakotxaren berbak ipinteko

moduak be laguntzen dau horretan. Imajinak be edukiaren euskarri dira orduan, askotan poesia bisualean zein prosa poetikoan ikusten dogunez.

Bat dator eduki/forma nahasketa hori liburuaren puzzle egitureagaz be, idazlearen barneko izaki poliedrikoa erakusten deusku-ta. Poliedrikoa eta denporan aurrera egin ahala arpegiak be aldatzen doana, beti be bera izanda. Puzzleak Rubiken kuboak dakart gogora. Rubiken kuboak eta behin irakurritako autobiografia, hainbat personak idazleari buruz euren ikuspegia emonaz osotua; baina hemen Sarriugartek konplejutasun poliedriko hori beti lehenengo personea erabiliaz lortzean dau.

Esan behar dot ez nazela barne-istorio psikologikoen zale, arrisku handia izaten dabe-ta "pornografia emozional"-ean jausteko, baina Sarriugartek berak "autosozio-biografia" deituten dauana erabilten dau eta onartu behar dot ikuspegi sozial hori emoteak, bere amorru garratz eta ironia kritikoagaz, harrapau egin nauala.

Bistan da Sarriugarte intelektual handia izateaz aparte irakurle amorratua dala eta hainbat eta hainbat idazleren aitamenak egiten ditu; askotan testuak eurak zuzenean jarrita. Eta horregaz gertatu jat sekula lehenago beste liburu bategaz gertatu ez jatana: liburuak irakurri bitartean, berak dituanak baino orrialde gehiago

irakurri dodazala aitaturako autoreen inguruan eta euren lanetatik, hainbesteko jakinmina bizten eustien aitamenok ze.

Kritika hau egiteko, atzenean, barriro irakurri behar izan dot meneginaz ez nebala tartekorik irakurriko liburu bere osotasunean dastatu eta enfokatzeko aldera.

Ereisten deutsot itzelezko fintze eta orrazkera lana daukala liburuak: idatzi eta idatzi egin eta ondoren ezabatu eta ezabatu, minimora eroan arte, 170 orrialdetara; eta ordenau eta ordenau kapitulu eta azpikapitulu bakotxari izenburu egoki eta argigarria emonda. Erronka eskerga idazlearentzako eta baita irakurlearentzako be, ze zatitxo horreek buruan hartuta norberak osotu behar dau testuingurua eta Rubik kuboan dana bere lekuan sartu.

Maite Artabe Urkiri



Danele Sarriugarte
Beste zerbaít
Consonni, 2025
192 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Lañrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Martiaren 2tik 8ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa (28-6). Amorebieta-Etxano.
Martiaren 9tik 15era
Traver Ibañez. Bedia. JA. Agireren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571

22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga (7-13). Amorebieta-Etxano.

Martiaren 16tik 22ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 1547

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez (14-20). Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiak egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Arte, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Arte: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Ordu: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era ordu.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era ordu.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era ordu. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.
Ubide Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Arte-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugao. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberio. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugao Zeberio. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugao. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugao Arte. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugao. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugao Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberio. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urtetan dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urtetan dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urtetan dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urtetan dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urtetan dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urtetan dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Arte. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzio burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzioa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketak:** Garbikuzi enpresa (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabietia (Arantzazu, Areatza eta Arte), Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortu, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Areatza Musik and Brewing
Musika eta Kultura Elkartea

Areatza Musik and Brewing Musika eta Kultura Elkartea eragin handia daukan talde kulturala da. Musikearen, gastronomiaren etasormenaren bidez herria eta eskualdea aktibetako helburua dauka, Areatza Musik & Beer nazinoarteko jaialdia antolatuz. Jaialdiak kalidadezko musikea doban eskaintzen dau, bertako zein kanpoko taldeei lekua emonaz eta sortzaile barriak sustatuz. Era berean, tokiko ekonomia, turismo jasagarria eta zero kilometroko produktuak bultzatzen ditu, herriko merkataritza eta ostalaritzeagaz lankidetzan. Boluntarioen parte-hartzean oinarrituta, komunitatea sendotu, Areatza eta Arratia kultur mapan kokatu eta lurraldearen garapen sozial eta ekonomikoari ekarpena egiten deutso, tokiko sareak indartuz eta partaidetzea sustatuz. Jasagarritasuna, inklusioa eta parekidetasuna be bere jardunaren oinarri garrantzitsuak dira.

ERETXIA

M8 eta M17;
Euskal Herria
feministarantza

Zezeilaren 21ean Talaia Feminista Unea ospatu zan Gasteizen. Euskal Herri osotik etorritako hamarnaka emakume* subiranista eta independentistek hausnarketak partekatutako topalekua izan zan honakoa. Hiru ziran gai nagusiak: bizitzaren prekarizazioa, erreakzino patriarkalak eta eskoieratze prozesuak, eta atzenik, burujaubetza beharri-zana. Arratiako kide bi bertan izan ginan, eta hausnarketak partekatu zein eztabaidetan murgiltzeko aukerea euki genduan. Martiaren 8a eta martiaren 17ko greba orokorra parez pare daukaguzan honetan, me-rezidu dau Talaian partekatu ziran kako batzuk mahaigainera ekarte.

Amaia Perez de Orozkok prekarizazioaren inguruan eskaini eban berbaldiak baieztapen gordin bat eukan oinarri: ongizate-estaduaren likidazioaren aurrean aurkituten gara. Feminismoak honetaz ondo jaubetu behar ebala azpimarratu, eta desmerkantilizazio eta desfamiliarizazio prozesu indartsuak martxan ipintea urgentziatzkotzat jo ziran. Topalekuko kideen aburuz, bizitzako eremu guztiak merkantilizatu dira kapitalismoaren fase neoliberalaren atzen hamarkadetan. Holan, interes ekonomikoak herritarren beharrianen gainetik ipini dira. Abstraktuak edo urruneko berbak dirala pentsau daitezue batzuk, baina gauza erreal eta egunerokoen inguruan berba egiten nabil: adineko personoen egoitzen pribatizazioa, osasun sistemearen gainbehera, industriaren deslokalizazioa... Ez dira gitxi adibideak.

Zerbitzu publikoen murrizketa eta bizitzaren garestitzea emoten dabil. Zentzu horretan, euskal feminismoak zaintza sistema publiko ko-



NIKOLE ZIARRUSTA
Arratiako herri mobimentuko militantea

Bizitzaren erreprodukzioa bera dago oin kolokan. Horregaitik da horren garrantzitsua martiaren 17ko greba orokorra be. Lanbide Arteko Gitxieneko Soldatea hemen ebazteak eta 1.500 euroko gitxieneko soldatea izateak gure bizitzak hobetuteko ezinbesteko neurriak dira

munitarioaren beharra erdigunera ekarten dabilenean, ez da kapritxoez ari. Bizitzaren erreprodukzioa mantentzea ahalbidetuko dauan egitura publiko eta komunitarioez ari gara, eta hau urgentea da. Alde batetik, pribatizazioak medio, ordaindu ezin diran lan guzti horreek andren gain geldituko diralako (familiarizazio prozesua deritxaguna), eta bestetik, kasu askotan ezin izango diralako ez eta aurrera eroan. Bizitzaren erreprodukzioa bera dagoalako oin kolokan. Horregaitik da horren garrantzitsua martiaren 17ko greba orokorra be. Lanbide Arteko Gitxieneko Soldatea hemen ebazteak eta 1.500 euroko gitxieneko soldatea izateak gure bizitzak hobetuteko ezinbesteko neurriak dira. Zergaitik? Batik bat, euskal herritarrak erosahalmena galtzean gabizalako eta Espainiar Estaduan eskoi muturra indarra hartzean dabilelako.

Gainera, sindikatuen datuek erakusten dabenez, ia 310.000 dira gitxieneko soldatea jasotzen dabenen personak Hego Euskal Herrian. Horreen gehiengoak emakumeak*, gazteak, eta persona migratu eta arrazializatuak dira. Pobrezia eta prekariedade egoerak guztiz zeharkatuta baitagoz patriarkadu eta kolonialismoagaitik. Batzuk saldu gura dabenean identitateen jantza abstraktutik harago, patriarkadu eta kolonialismoa sistema ekonomikoak diralako. Kondizino materialen inguruan berba egiten gabiz feministok.

Guzti honegaitik martiaren 8an zein martiaren 17an kaleak hartzeako deia egin beharrean nago. Euskal Herriko Mugimendu Feministak martiaren 8rako aukeratu dauan leloak dinoan moduan, beste mundu bat feminismitik posible dalako, antolatu eta kaleak hartzera goaz.



MARTXOAK 8

GORA EMAKUMEEN BORROKA!



Ubideko Udala

LUMATUTEN



ZEFE ZIARRUSTA

M3 estadu
inpunidadearen
arkitektura

Erregimenaren oinatz krudelenak gogoratzen deuskuz M3ak, oindik oin, 50 urte pasau badira be eta Asisko Frantziskoren elei-za Memoria Demokratikorako gune izentau eta bideratuko daben honetan. Izan be, gertakarien eta erantzuleen joan-etorriak sekretupean eta ondorio barik darraite, nahiz eta biktimak aitortu.

Holan, Estaduaren erantzukizuna aitortu eta artxiboak desklasifiketea exijidu dau Martxoak 3 alkarteak.

Berlingo uria banatzen eban harresia bota eben, alabaina, arkitektura bereizketa eta bazterketa ispilu modura erabilten jarraituten dabe, zelan AEBek edo Israelek munduaren alde ona eta txarra banatzeko harresiak eregiten jarraituten daben. Antzera VOXekoek Gasteizko

fakultadean egin barri daben agerraldian, gure herriaren zein inmigrazinoaren edo feminismoaren aurkako hesiak altxauz.

Bistan da jente-artearen, eta faxismo eta oinordekoen, artean dogun amildegia... baina eutsi eta aurre egin beharra dago, Zaramaga, Betoinko langile hareen lorpen eta eskubideak defendiduteko.

Estaduak gero eta autoritarioagoak, gerrazaleagoak, polizialagoak bihurtuten jabilkuzan honetan, jente-artearen egoerea kazkartuten eta burrukatuteko ia aukera barik bideratu gura dau oligarkia ekonomikoak eta indartzen doan faxismo barriak.

Beraz egin dagiogun aurre esplotazino, bortizkeria eta zapalkuntzetan oinarrituten dan sistemeari antolakuntza antifaxistegaz.

ZERTZEAN



Bidaia baten bila

ELEDER GONZALEZ

G oizetik itzartu naiz eta pare bat minutu eman ditut luzatzen, baita ohean aharrausi egiten ere. Hamar minutu pasatuta, bat-batean amak berriz ere itzartu nau. Berak behin eta berriz errepikatu dit, “eguna heldu da, bagoaz, espabilatu...”. Orduan, begiak guztiz ireki ditut eta aurpegira zoriontasunez betetako irribarrea etorri/agertu zait.

Maletak hartu eta etxeko hirurak batera beti imajinatu dugun leku baterantz abiatu gara. Paisaiak, natura, eta, batez ere jende ona.

“Trin... trin...”, alarma madarikatua! Ametsak ez dira beti egia bihurtzen.

* AEK-k antolatutako IV. Mikroipuin Txapelketako bigarren saria da *Bidaia baten bila* ipuina.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak **BEGITU** argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

E uskal Herrian jaio zan Korrika baina euskaldunok mendeetan egin dogun moduan, ozeano eta kontinenteak kurutzatu ditu atzen urteetan. Oin urte bi, 23. Korrikan bost kontinentetako 50 uritik goratan korridu eban jenteak euskerearen alde: Saharatik Sidney-ra, Tokiotik pasauta Mumbaira eta Illinois-tik La Platara. Euskal etxeek, euskera irakasle eta ikasleek edo kanpoan behar egiten dabizanak hartzean dabe euskerea munduan zabalduteko aldarria, diaspora euskaldunak saretuteko aukera parebakoa izanik.

Euskerearen aldeko lasterketak bakarrik ez, Korrika eredu hartuta hizkuntza gitxitu ugari bultzatuteko Korrikaren ahiztak be existiduten dira. European batez be, baina baita Ameriketan be: bretoieraren aldeko Ar Redadeg, okzitanieraren aldeko La Passem, katalanaren aldeko Correllengua, galizieraren aldeko Correlengua, galesaren aldeko Ras yr Iaith, gaelikoaren aldeko Rith, alsazieraren aldeko Sprochrenner, korsikeraren aldeko Corringua eta Mapucheen mapuzugun hizkuntzearen aldeko Lefkantun.





LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea

Ureztaketa instalazioa

Mantenua eta Inausketa



BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa

hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Ortodontzia

Implanteak

Estetika

Bidebarri 1. beheko
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegieta Zentratu: 900
R.P.S. 21/06

ARANTZAZU

Arratiera eta hitanoaren alde, Aikoemenzan

Martiaren 13 eta 14rako, gure euskerearen gaineko egitaraua antolatu da Arantzazun.



Asier Abrisketa

Arantzazuko Euskera Batzordeak, Arginatx Mendi Taldearen laguntzeagaz, Aikoemenzan Eguna antolatu dau martiaren 13 eta 14rako. “Arratierearen zein Arratiako hitanoaren inguruan jai-giroan hausnartu eta gozatuteko” helburuagaz, gure euskerea lantzeako hainbat jarduera antolatu dabez barikuzapaturako. Bariku arrastian, Gotzon Aurrekoetxea dialektologian espezializautako euskaltzain urgazle dimoztarak, Arratiako hitanoren gaineko berbaldia eskainiko dau. Zapatu goizean barriz, Arratiako berba eta hitanoa lantzeako orientazino probak egingo dira, adin guztietarako aproposak.

Gero, herri kirolak egiteko aukerea eta arantzazuztarren arteko desafioa jokatu da. Amaituteko, 12:30ean, bertsolari gazte arratiarrakaz triki-bertso poteoa egingo da.

Martiak 13, barikua
18:00etan, Gotzon Aurrekoetxearen Arratiako hitanoaren gaineko berbaldia. Kultur Gunean.

Martiak 14, zapatua
09:30ean, Arginatx Mendi Taldekoen orientazino probea.
10:30ean, familientzako orientazino probea.
11:00etan, 13-20 urte bitartekoentzako orientazino probea.
12:30ean, bertso-triki poteoa Arratiako bertsolariakaz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Lekeition pasauko dabe aurtengo uda Zaztaparrek

Abuztuaren 3tik 14ra izango dira udaleku itxiak eta matrikulazino prozesua martian egingo da.

Asier Abrisketa

Zaztaparrak Asti Taldeak antolatutako urteroko udaleku itxiak badaukie non batu aurtan be, Lekeition ospatuko dira. Autobusetan abuztuaren 3an aurtengo dira ume eta gaztetxoak, begiraleakaz batera, Arratiatik Lekeitionarantza eta bertan hamabi egun egin ostean, abuztuaren 14an egingo dabe buelte. Aurtan 2009 eta 2019 urte bitartean jaiotako umeak

hartuko dira eta lehenengo bilera informatiboa martiaren 5erako dago deituta, 19:00etan Igorreko Kultur Etxean. Izen-emotea barriz martiaren 12an eta 13an egin ahal izango da, 17:00etatik 19:00etara, Igorreko Kultur Etxean. Ume bakoitzeko prezioa 250 eurokoa da baina neba-arrebentzako, 450 euro izango dira bi izan ezkerok eta hiru izanda, 550 euro. Arazo ekonomikoak dabezanentzako, prezioak aldatu daitezke.

ZEANURI

Martia eta aprilerako hamabi proposamen dakarz Udabarria Loran ekimenak Zeanurin

Irakurzaletasuna eta kulturea sustatuteko asmoagaz antolatu dira liburu aurkezpenak eta askotariko emonaldi kulturalak.



Asier Abrisketa

Zeanuriko Udalak aurkeztu dau aurtengo Udabarria Loran egitarau kulturala. Herrian irakurzaletasun eta kultur eskaintzeari bultzadatxoa emoteko programazino honen bigarren edizinoia izango da aurtengoa, oin urte bi antolatu zan Libururaren Astetik garatu dana. Holan, martia eta aprilak iraun bitartean, egun gitxirik behin egingo dira askotariko jarduerak: liburu aurkezpenak, kantaldiak, errezitaldiak, jantzak, poteo musikatuak, proiektzinoak, bertsoak eta kontzertuak.

Martiko lehenengo asteetan berbarako, hilaren 5ean Onintza Enbeitak bere atzen liburua, andra baserritarren gainekoa, aurkeztuko dau. Hurrengo egunean, Bernardo Atxaga idazleak eta Jabier Muguruza musikari eta idazleak *Paradisua* eta *katuak* liburuaren kontaketea egingo dabe. Hilaren 7an barriz, Etzanderak zeanuriztar jantzarien andra taldeak bere

atzen ikuskizuna eskainiko dau. Hilaren 10ean, bortizkeria sexistearen kontrako *Ahizpatasunaren hariak* dokumentala proiektauko da. Aste horretako barikuan oster, kantu-poteoa egingo da 11 Kantu taldeagaz eta hilaren 18an, Sweet Winds taldeak musika zeltikoa eskainiko dau, Kultur Etxean zein tabernaz taberna.

Egitaraua
Martiak 5, eguena
19:00etan, Onintza Enbeitaren *Bizitza baten txatalak* liburua-



ren aurkezpena. Kultur Etxean.

Martiak 6, barikua
19:00etan, Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren *Paradisua* eta *katuak* emonaldia. Kultur Etxean.

Martiak 7, zapatua
19:00etan, Etzanderak andra jantza taldearen *Akaberea* data... jantzaldia. Frontoian.

Martiak 10, martitzena
18:00etan, *Ahizpatasunaren hariak* dokumental proiektzinoia, Mazalak-en eskutik. Kultur Etxean.

Martiak 13, barikua
19:30ean, kantu-poteoa 11 Kantu taldeagaz, Korrika Batzordearen eskutik. Txoko Sagar-natik hasita.

Martiak 18, eguaztena (Saint Patrick's eguna)
20:00etan, Sweet Winds taldearen *In the Celtic Path* kontzertua. Kultur Etxean. Gero, tabernaz taberna.

Martiak 27, barikua
21:30ean, herri afaria eta Andoni Ollokiegiren kantaldia, Korrika Batzordearen eskutik.

Aprilak 16, eguena
19:00etan, Urtzi Ugaldere AMA libururaren aurkezpena. Kultur Etxean.

Aprilak 17, barikua
19:00etan, *Esne berritan* bertso-saio literarioa Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal eta Aissa Intxausti bertsolariakaz eta Amorante musikariagaz. Kultur Etxean.

Aprilak 23, eguena
19:00etan, Xabier Berasaluze “Leturia”-ren *Koplarik kopl*a kontzertua. Kultur Etxean.

Aprilak 24, barikua
19:00etan, Ane Ablanedoren *Zapalduen pedagogia* eta *Heziketa librea* liburuaren aurkezpena. Kultur Etxean.

Aprilak 29, eguaztena
19:00etan, Karmelo Uriarte eta Xabier Amurizaren *“Ederriko”*. *Kontau behar dot* liburuaren aurkezpena.

ARRATIA

Martiaren 5ean aurkeztuko da Arratiako 24. Korrika Diman

Lekukoak martiaren 27an kurutzatuko dauz Arratia eta Ubide euskaltzaleen eskurik esku.

Asier Abrisketa

“Euskara gara” lelopean egingo da 24. Korrika, martiaren 19tik 29ra. Atharratzen hasi eta Bilbon amaituko da euskerearen aldeko ekimen erraldoia, tartean, lekukoak 2.175 kilometro inguruko bidaia egingo dau Euskal Herriko 460 herri inguru kurutzatuta. Arratia eta Ubide-tik, martiaren 27an pasauko da Korrika. Usansolotik sartuta, Bediara 08:00ak pasauta helduko dala aurreikusi dabe antolatzaileek eta behin Arratiako bailara behetik gora zeharkatuta, Ubidetik urtengo da 11:30ak pasauta Murgia alderantza.

Urtero lez, Arratiako AEK Korrikaren aurkezpena egingo dau Arratian eta aurtengoa Diman egingo da, martiaren 5ean jubiladuen lokalean. Aurkezpena 19:00etan egingo da eta bertan aurtengo Korrikaren mezua azalduteaz gainera, Arratiako ibilbide eta ordutegien nondik norakoak argitu eta Korrika Kulturalako jardueren barri emongo da. Gero, bertaratutakoek mokadutxoa be



egingo dabe.

Arratia eta Ubideko ordutegiak
Honeek dira AEK-k aurreratutako ordutegi zehatzak: Bedia 08:07, Lemoa 08:20, Igorre 08:47, Arantzazu 09:21, Artea 09:40, Areatza 09:53, Zeanuri 10:06 eta Ubiden 11:29an. Bide osoan zehar, N-240 errepidetik ibiliko

da lekukoa eskuz esku. Baina herri guztietan sartzear gainera, Artean sartu eta Zeanuriko urigunetik urten artean kamino zaharretik, BI-3530 errepidetik, joango da furgonetea eta atzean, euskaltzale moltsoa. Ibilbidearen zehetasunak Korrikaren aplikazioan zein korrika.eus webgunean dagoz ikusgai.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Sindikatuak greba orokorra deitu dabe martiaren 17rako

Gitxieneko soldata Hego Euskal Herrian ebatzi eta 1.500 eurokoa izatea da sindikatu eta langileek aldarrikatuko dabezan helburu nagusiak.



Asier Abrisketa

ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuak deituta, Hego

Euskal Herrian greba orokorra egingo da martiaren 17an. “Aberastasuna banatuteko, soldatak hobetu” lelopean egingo dira

mobilizazioak eta Arratian, martxan dagoz burruka eguna antolatuteko greba batzordeak. Greba orokor eguneko Bizkaiko

AREATZA

Ekoizle eta artisauen azoka eguna Areatzan

Martiaren 14an, goizez egingo da azokea eta eguerdian Areatzako Banda egongo da.

Asier Abrisketa

Inguruetako baserritar, ekoizle eta artisauak zitea izango dabe Areatzan martiko bigarren zapatuan egingo dan merkaduan. Postuak 10:30ean zabalduko dira eta 14:00etara arte egongo dira zabalik. Erosleek mota askotako produktuak topau ahal izango ditue. Ekoizleen eskutik gaztaiak, eztaia, euskal pastel eta ogiak, garagardaoak, pateak, gildak eta gozoak egongo dira. Artisaulanak be ugariak izango dira, hamar bat postu egongo dira-ta.

Gorbeialde Landa Garapen alkarteak antolatutako merkaduetan ohiko danez, egindako erosketa baxotxagaz tokiko produktu-loteen zozketan par-

te hartzeako zenbakiak lortuko dabez erosleek eta gero, zozketea egingo da.

Azoka eguneko musikea

Merkadu egunak ez dira erosketak bakarrik egiteko, jaitxoak be badira eta honeek girotuteko, musikeak be bere protagonismoa izango dau Areatzan hilaren 14an. Azokea bera girotuteko, 13:00etan Areatzako Bandak kanta jaia eskainiko dau udaletxeko arkupeetan. Gainera, Arratiako Musika Eskolako abeslarien laguntzea izango dabe, eta ziur bertaratutakoena be. Gauean barriz, llientia rock talde zeberiozarrak kontzertua eskainiko dau, 21:00etan Bixer tabernan.



manifestazioa Bilboko Plaza Eliptikotik urtengo da 12:30ean eta sindikatuen Arratiako militanteek BEGITU aurreratu dabe, arrastian Igorren be egingo dala manifestazioa, 18:30ean Kultur Etxeko plazatik urtenda.

Arratia mailako batzorde orokorraren hurrengo eta atzen bilera martiaren 10ean egingo da, 19:00etan Igorreko Kultur Etxean. Gazte batzordearen hurrengo batzarra barriz, martiaren 12an egingo da, 18:00etan Igorreko Kultur Etxean.

Zezeilaren 22an, gazte ba-

tzordeak agerraldia egin eban Artean, gazteak grebara batzeako animetako helburuagaz. Bertan adierazo ebenez, gazteek “prekarietadea modu gordinen” bizi dabe, etxebizitzaren prezioa eta bizitzaren kostua, “etenbarik gora” dabilen honetan. Holan, “lan eta bizi-baldintza duinak aldarrikatuteko” beharra adierazo eben: “Arratiako gazteok greba orokorrera deitzean dogu eta gazteriari greba komiteetan batutera animetan zaituegu. Gazteok greba orokorrera!”.

ARRATIA

Proiektu profesionalak martxan ipinteko AktibaRural-20 programea aktibau da

Arratiako landa-ingurunean “aldaketearen protagonista” izan gura daben hogeï personari lagunduko jakie proiektuak gorpuztuten.

Asier Abrisketa

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Bertindtasun Sailaren finantziarazinoagaz, ASLE ekonomia sozialean jarduten dauan aholkularitza enpreseak AktibaRural-20 proiektua ipini dau martxan Arratian. Honen bitartez, “landa-ingurunean proiektu barrien sorrerea” bultzatu gura da. Holan, bakotxaren ideak “benetako negozio” bihurtuteko prozesuan laguntzea eskainiko dau ekimenak. Hogeï personaren proiektuak aukeratuko dira. Zezeilaren 12an egin zan informazio bilerare Lemoan baina ASLEtik BEGITU azaldu dabe, oindino be badagozala plazak. Interesdunek, aac@asle.es (Alazne Amado) helbidera idatzi leikie eta honek informazio-saioen buruzko zehaztasunak emon eta diagnostikorako alkarrizketea zelan egin azalduko dau. Laguntza hau emoteko topetan diran profilak 45 urtetik go-

rakoak, Arratiara heldu barri diran personak eta lanbakoak dira. Aukeratutakoakaz, PTOC (Personea, Lurraldea, Aukerea eta Kolektiboa euskeraz) metodologi landuko da; bakotxak egiten zer dakian eta zer gustetan jakon balorau, inguruan zein zerbitzu edo produkturen falta dagoan aztertu, negozio-eredu jasangarri eta balioduna diseinatu eta persona eta erakundeakaz sare bat osotuten lagunduko jako. Bide horretan bakotxaren “beharretara egokitutako akonpainamentua eta prestakuntza praktikoa” eskainiko dau ASLEk. Lehenengo formazio saioak martiko lehenengo astean egingo dira Igoerreko Kultur Etxean, 09:30etik 17:00etara, eguerdian deskantsua eginaz. ASLEtik azaldu dabe, posible dala saioaren bat Lemoan egitea. Halanda be, esan moduan badago oindino proiektuan parte hartzeako aukerea, aac@asle.es (Alazne Amado) helbidera idatzita.



DIMA

Abel Ariznabarretak burdinolen gaineko liburua aurkeztuko dau jente-aurrean

Martiaren 6an egingo da liburuaren lehenengo aurkezpena eskolako kamanan, Andoni Egaña eta Gari Otamendiren laguntzeagaz



Asier Abrisketa

Abel Ariznabarreta (Dima, 1952) historialari eta etnografoak *Burdiñoletako gabi-hotso Diman (1440–1875)* liburua argitaratu eban 2025 akaberan Antzasti museoagaz batera. Lan honek, XV. eta XIX. mendeen artean Diman dokumentata dagozan bost burdinolen historia azaleratuten dau, bai eta honeen jaubeak ziran po-

dere-familia arratiarren historia. Indusin, Atremine, Ibarra, Artzubin eta Ziarrustan egon ziran burdinolak eta ziurrenik beste bat be, Zamakolan. Honeen jaube izan ziran Urretxa, Urizar, Asua, Letona, Ziarrusta, Goienola, Olabarri, Bernaola, Azkarate eta Zamakola familiak eta euren ibilbidea jarraituten dau, landa-oligarkia izatetik, XIX. mendeko gerra eta Espainiako Inperioaren gainbe-

herea izan zala-ta, burdinolak etekingarriak izan ez eta politikara saltu egin ebenera arte. Zoritzarrez, gaur egun errastu gitxi dagoz baina egindako dokumentazio lanak industria ha zelangoa zan erakutsi eta pasadizo bitxi batzuk be azaleratu dauz. Liburua Antzastin urrietatik eta Durangoko azokan be salgai egon dan arren, lana lehenengo aurkeztuko dau martiaren 6an, barikua, Abel Ariznabarretak jente-aurrean. Eskolako kamanan egingo da aurkezpena 19:00etatik aurrera, eta Andoni Egaña bertsolaria eta Gari Otamendi musikaria izango ditu lagun. Holan, Ariznabarretaren liburuaren gaineko azalpenak eta burdinolen historiako kuriosidadeen kontaketea, Andoni Egañaren bertso eta Gari Otamendiren bibolin doinuakaz tartekatuten joango dira, Ariznabarretak berak BEGITU aurreratu dauanez.

ARANTZAZU

Datorren ikasturterako Haurreskolea zabaltzea bultzatu dau Udalak

Gitxienez 0 eta 3 urte bitarteko bost umek emon beharko dabe izena datorren ikasturtean Haurreskolea martxan ipinteko.

Asier Abrisketa

Arantzazuko Udala Haurreskolen Partzuergoagaz herriko txikerrentzako Haurreskolea zabalduteko prozesuan dago. Haurreskolea 2026/2027 ikasturtean zabalduteko asmoa dago baina horretarako, gitxienez bost umek egin behar dabe matrikulazioa. Holan, 2024, 2025 eta 2026an jaiotako umek aukerea izango dabe aurrematrikulazioa egiteko eta bost edo gehiago izan ezke-ro, aurrera egingo dau proiektuak. Aurrematrikulazioa aprilaren 13tik maiatzaren 4ra arte egongo da zabalik, Arantzazuko udaletxean bertan. Asier Aburto Arantzazuko alkateak BEGITU azaldu dauanez, hainbat gurasok egin dabe

herrian Haurreskolea zabalduteko eskerea eta holan, Udala martxan ipini da dokumentazio eta kudeaketa kontuakaz. Haurreskolea gaur egun Ludo-teka moduan erabilten dan

espazioan kokatuko da eta espazioa, % 95ean dago horretarako prestatuta, alkateak azaldu dauanez: “Gauza batzuk atera eta beste batzuk sartutea bakarrik beharko da”.





Eskolako instalazinoak hobetuteko 120.000 euroko proiektua martxan

Lehenengo fasean gela barri bat egin da eta gainontzeko lanek udan segiduko dabe.

Asier Abrisketa

Pasau dan urtean Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak Udal jaubetzako eraikinetako obrak diruz lagunduteko UDALERAIKI programea ipini eban martxan. Holan, Arteako Udala eta Arteako Eskola Publikoko zuzendaritzeak eskolearen beharrianak asetuteko zer egin pentsau eta 120.000 euroko inbersinoa beharko eban proiektua aurkeztu eben. Gorka Beitia zinegotziak BEGITUN azaldu dauanez, Eusko Jaur-laritzeak proiektua 73.000 eurogaz laguntzea ebatzi eban eta Arteako Udalak ipini dau gainontzekoa. Helburu nagusia, eskolea eregiterrakoan goiko aldean geratu zan espazio diafano handia hobe-

tutea da eta egin dira lehenengo hobekuntzak, gela barri bat eregita. Arteako eskolatik BEGITUN azaldu dabenez, 2. zikloan (LH 3-4) “gela kopurutsu bat -22 ikasle- daukagu eta atzenean beste espazio bat behar genduan”. Ikasgai batzutan banatu egiten diranez eta aurreko gelea talde-lanak egiteko “itogarria” zanez, lehenengo fasean egin da gelea, urgentziazkoa



zalakoan. Gela barriak isolamentu akustikoa dauka eta lanak amaituta, jarraian erabili ahal izango dabe umeek. Oin urte batzuk egin zan gelan be ipiniko da isolamentu akustikorako sabai faltsua.

Hurrengo lanak

Gorka Beitia zinegotziak azaldu dauanez, lanak “apurka-apurka egingo dira eskolearen beharrianaren arabera egiten”; eta hurrengo lanak udan egitea espero da. Atzen pisuko espazio diafanoa emonaldiak egiteko be erabilten da eta eskolatik esan dabenez, “leku hotz eta hutsa” da. Holan, lekua txukundu eta eszenatoki bat egingo da, eskolako emonaldietarako eta familiak etorteko aproposa. Beste

alde batetik, eskolako gauzetarako eta dokumentazinoa gordetako beharrianak asetuteko biltegi bat be egingo da bertan. Horrezaz gainera, beheko pisuetako geletan be zorua altxau eta barriztauko da. Etorkizun labur batera begira barriz, eskolako zuzendaritzatik STEAM la-

borategitxo bat egiteko beharra be ikusi da. Hobekuntza honeek eskolarako beharrianak dirala azpimarratu dabe eskolatik. Izan be, espazio barriak sortuta, dagozanak be hobetuten dira; berbarako, liburutegia liburutegi moduan erabilteko, eta ez danerako.



Zerbitzu minimoek baldintzatuta, jarraipen zabala izan dau jantokietako langileen grebak

Asier Abrisketa

Zezeilaren 24an, 25ean eta 26an EAEko eskola publikoetako jangeletako beharginek greba egin eben, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuen deialdiari jarraituta. Hitzarmen kolektiboa desblokeetako helburuagaz egin ziran mobilizazinoak: “Soldata igoerak ez diralako aplikau eta ratioak, funtzinoak eta lanaldiak hobetuteko aurrerapenik ez dalako egin”. BEGITUREN eremuan, eskola gehienetan jarraipen zabala izan dau greba deialdiak baina zerbitzu minimoek, LABen ustez gehiegizkoak, baldintzatu ebezan greba egunak. Igorre eta Lemoan jarraipena % 100tik hur geratu zan eta zerbitzu minimoak bakarrik bete ziran. Zeanurin jarraipena % 100ekoa izan zan eta Dimakoena % 85ekoa. Zeberion be % 100ak egin eban greba, zerbitzu minimoak beteteko txandakatuta. Areatzan seitik batek egin eban greba eta Artean, % 40ak greba egin gura izan eban arren, zerbitzu minimoengaitik ezin izan ebezan mobilizazinoak jarraitu.

MARTXOAN AREATZARA ZATOZ ETA BIZI HERRIA!

Martxoak 7, zapatua
12:30 Balkoitik balkoira Ane Labaka eta Oihana Bartra bertsolariekin. Gai-jartzaile: Maider Larrea. Ostein, argazkia. Martxoaren 8a.

Martxoak 8, domeka
Martxoaren 8a dela eta 12:00etan manifestazioa eta ekitaldia Igorren. Denok Igorrera.

Martxoak 13, barikua
19:00 Laburbira, euskarazko film laburren emanaldia. Udaletxean.

Martxoak 14, zapatua
10:30-14:30 Nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azoka. Areatzako Plazan.

13:00 Areatzako Bandaren kanta jaia, musika eskolako abeslariarekin batera. Udaletxeko arkupeetan.

Martxoak 19, eguena
15:30 Korrika hasiera Atharratzen.

Martxoak 20, barikua
11:30 Arratiako Koruaren Agate Deuna eta aldaerak diskoaren aurkezpena, prentsaurrekoa Udaleko Pleno Aretan. Arratiako Korua 75 urte.

Martxoak 21, zapatua
20:00 Arratiako Koruaren kontzertua eleizan, Agate Deuna eta aldaerak.

Martxoak 26, eguena
17:00-19:00 Ludotekako umeek tailerrak Korrikarako herria apaintzeko. Plazan.

Martxoak 27, barikua
09:53 Korrika Areatzan.
19:00 Iholdi Beristainen Ni eta nitarrak bakarriketa Laminetxe Gaztetxean. Ostein, Bilbao anaiekin kalejira herrian zehar.

Martxoak 29, domeka
Korrika amaiera Bilbon. Denok Bilbora.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zapalkuntza sistemen aurrean, antolakuntzea eta burrukea aldarrikatuko dira martiaren 8an

Arratiako Mugimendu Feministak deitutako manifestazinoaz gainera, jarduera ugari dagoz antolatuta aurretik zein atzetik.



Asier Abrisketa

1907an Clara Zetkinek burututako I. Nazinoarteko Andra Sozialisten Konferentziaz geroztik, martiaren 8a Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna da. Mende bat geroago, andren eskubideen aldeko burrukan oindino be egiteko asko dagoala-ta, Arratiako Mugimendu Feminista buru-belarri ibili da aurtengo martiaren 8a antolatuteko lanean. Holan, AMFk egitarau bateratua aurkeztu dau, momenturik gorena martiaren 8ko manifestazino eta ekitaldia izango dalarik; Igorreko Kultur Etxetik abiatuko da manifestazinoa domekan 12:00etan. Herri desbardineta andra taldeak blokeetan helduko dira eguerdian Igorreko Kultur Etxera eta hortik abiatuko da manifestazinoa. Aurtengo leloak feministek zapalkuntzaz betetako mundu hau eraldatuteko daukien grina erakusten dau: "Beste mundu bat feminismotik. Zapalkuntza sistemen aurrean: antolakuntza eta borroka".

Martia hasikeran zehar Arratiako Mugimendu Feministak, andra taldeek zein udalek antolatu dabazan jarduera ugariez gainera, gazte feministek

zita garrantzitsua izango dabe martiaren 7an, hurrengo egunerako motorrak berotuteko helburuagaz. Izan be, aurtengo hirugarrenez antolatu da Ganbara Feminista, Arratiako gazte egun feministea. Martiaren 7an, Areatzak Laminetxe Gaztetxean eroango da aurrera ekimena. Egun osoko ekimena izango da; goizean tailerrak eta mahai-ingurua egingo dira Laminetxe Gaztetxean; gero bazkaria eta bertso-saio musikatua egingo dira udaletxeko arkupeetan eta jarraian, poteoan urtengo dira gazte femi-

nistak. Gauez barriz, 22:00etan ekitaldia egingo da Laminetxen eta herritik karro-poteoan urten ostean, Laminetxera bueltauko dira gazteak, MJ Ganbararen musikeagaz jantzan egitera.

Martiak 2, astelehena
ARTEA
18:30etan, Emakumeak herri kiroletan: geu ere bagara nor! dokumentalaren proiektzioa. Kultur Etxean.

Martiak 6, barikua
ARANTZAZU
20:00etan, bertso-poteo femi-

nista. Montero tabernatik.

ARTEA
18:00etan, Irati Astondoa eta Uxue Ansorregiren herri kirol erakustaldia. Plazan.
19:00etan, Harriti taldearen harri proba erakustaldia.
21:00etan, andren afaria Herriko Bentan: barazki krema, lasagna (okelazkoa edo begetala) eta pantxinetea. Txartelak salgai martiaren 3ra arte; 20 euro.

Intxausti, Oihana Arana eta Aner Peritz; 19:00etan, Rally Poteoa; 22:00etan, ekitaldi feministea Laminetxen; 22:15ean, karro-poteo girotua Laminetxetik hasita; gero, MJ Ganbara Laminetxen.
12:30ean, Balkoitik balkoira Ane Labaka eta Oihana Bartra bertsolariakaz. Gudarien Plazan. Ostean, argazki herrikoa.

IGORRE
19:30ean, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen ZtandaP bakarriketea. Lasarte Aretoan.

Martiak 8, domekea
DIMA
11:00etan, iturriaren inaugurazinoa: testuaren irakurketea, abestia eta alkarteakaz topa. Andren parkean.

IGORRE
12:00etan, manifestazinoa eta ekitaldia. Kultur Etxetik.

ZEBERIO
12:00etan, elkarretaratzea, Sei emakumeren testigantza, iragane-ko Zeberio ulertzeko dokumentalaren proiektzioa eta mokadutxo.

Martiak 9, astelehena
ARTEA
18:30ean, (Des)kontrolatuta? antzezlan. Kultur Etxean.

Martiak 10, martitzena
ZEANURI
18:00etan, Ahizpatasunaren hariak dokumental proiektzioa. Kultur Etxean.

Martiak 11, eguaztena
LEMOA
18:00etan, Migrad@s sin fronte-ras: visibilizando las violencias contra las mujeres inmigrantes en situación administrativa irregular erakusketearen aurkezpena. Kotxepin Kultur Etxean.

Martiak 13, barikua
ZEBERIO
18:00etan, maskulindade toxikoari buruzko tailerrak (bat 10-12 urte ingurukoentzako eta bestea gurasoentzako). Eskola Zaharrean.

BEDIA
16:30etik 18:30era, Andrentzako ile-apaindegi zoroa eta kafea. Eskolan.

Martiak 7, zapatua
AREATZA
III. Ganbara Feminista: 10:00etan, harrera eta gosaria Laminetxe Gaztetxean; 11:00etan, tailerrak: mural margoketa kolektiboa eta Aliantzak josiz; 13:00etan, mahai-ingurua: Beste Arratie bat feminismotik; 15:00etan, bazkaria udaletxeko arkupeetan; 17:00etan, bertso-saio musikatua arkupeetan: Aissa





IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartea, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

BEGITU

TAUPA XXIII.edizioa Martxoaren 1etik 29ra LABURBIRA

Euskarazko film laburren
zirkuitu ibiltaria

Martxoak 13
19:00

UDALETXEKO Areto Nagusia
(AREATZA)



OLENTZERORI ESKATU NION AMAIA SAN SEBASTIAN LARZABAL •
ERREKA ZOKO HORTAN EKAITZ BERTIZ •
FISHY JUNE ASUA OLABARRIA • A-MANIKI ELIXABET NUÑEZ •
GERATZEN DEN HORI AITOR GAMETXO ZABALA •
ORAIN ZER? AINHOA URGOITIA • HOTZIKARA ANE CUESTA •



MAR TXO AK 8

**GORA
EMAKUMEEN
BORROKA!**



Arantzazuko Udala

BESTE MUNDU BAT FEMINISMOTIK. BURRUKA ETA ANTOLAKUNTZA

Iraultza haszia da

MARTXOAREN 8A





Kapitalistei sua emon eutseen Arteako Kokomarroek

Donald Trump, Emmanuel Macron, Pedro Sanchez eta Ursula von der Leyen gorpuztuten eban Kuberue izan zan kondenaua.

Asier Abrisketa

Zezeilaren 13an arteaztarrek Kokomarroen desfileagaz eta Kuberue erreaz ospatu ebezan Aratusteak. Kokomarroak 2021eko Inauterietan berbiztu ebezan Artean, jai horren inguruko ohitura zaharrak berreskuratuteko asmoagaz. Ordutik, Gau Baltzean zein Aratusteetan urteten dira izaki honeek Arteako kaleetara eta aurtengoan ez dira gitxiago izan. Sekulango euri-zaparradeari aurre eginaz kokomarroak, sutautsak, mamarroak, Kapaxea, Huntzurrie eta Errementarie kalejiran urten ziran Kuberue gainean plazara eroanaz. Aurtengo Kuberue kapitalista handi bat izan zan, eskuetatik es-

kegita Donald Trump AEBetako presidentea, Emmanuel Macron Frantziako lehen ministroa, Pedro Sanchez Espainiako presidentea eta Ursula von der Leyen Europar Batasuneko presidentea eroiazala. Plazan, epaileek epaia irakurri eben eta gainontzekoek eskatu eben kastigurik eta gogorrena, "Sue, sue, sue...!".

Epaia:
"Gaur, Kuberue, Arteako herritarrok epaitzen zaitugu!"

Zure kontrako karguek honako hauek dire:

Kapitalismo inperialista basatia ezartzea munduan.
Gitxi batzuen mesedetan, pla-

netako baliabide natural guztiak ustiatzea, gehienentzat miseria utziz.

Horretarako pertsonen alde ilunenak azalarazi dozuz: arrazakeria, saldukeria, faxismoa, indarkeria eta gerra. Gerrea eraman dozu bazter guztietara, eta haregaz negozioa egin: Siria, Libia, Venezuela, Nigeria, Sudan, Palestina eta zerrenda luze bat.

Munduko gastu militarra behin eta barriro igoz, pertsonen oinarrizko beharrak alde batera itzi eta etorkizuneko belaunaldiak betirako hipotekatu dozuz.

Guzti honen aurrean, zer erabakitzen dau herriak?

Sue, sue, sue!"





Epaileak eta Kuberue.



Mamarroak.



Huntzurrie.



otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus

ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa,
arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz**
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

SWEET WINDS

Saint Patrick eguna Zeanurin: Sweet Winds taldeak Euskal Herria eta Irlanda musikaz lotu gura dau

Zeanuriko musika taldeak emonaldi berezia egiteko asmoa dauka Saint Patrick's egunaren harira Euskal Herriaren eta Irlandaren arteko hartu-emonak estutzearren. Sweet Winds taldea Rafaël Parejo-Couvert-en eta Ingrid Kuschick-en beste proiektu bat da.

Alvaro Rabelli

**Sweet Winds taldeak Zeanur-
in joko dau martiaren 18an,
zer eskainiko dozue?**

Emonaldi berezia izatea gura dogu. Batetik, ordu beteko kontzertu arrunta egingo dogu Kultur Etxean, eta, bestetik, ondoren tabernarik taberna ibiliko gara musikea jentearengana hurreratutearren eta herrian giroa biztearren. Eguazten iluntzean izango da, jai bezperan, horretarako jentea animau gura dogu, baita gugaz batera kantetan be. Polita izan leiteke. Zeanuritik kanpoko jentea be etortea gura geunke.

**Ze errepertorio ekarriko do-
zue oingo honetan?**

Kanta ezagunak eroango doguz, musika zeltikoa deritxana Saint Patrick ospatuko dogun atxakiaz, jenteak holakotzat daukana behintzat, ze, gu etiketa horregaz ez gagoz sano konforme. Izan be, ustez zeltikoa dan musikearen atzean musika anglosaxoia baino ez dago, edo Europa osoko kulturetan dagozan musika doinuak dira. Horregaitik, gure kontzertuak be didaktikoak dira, jenteari, esaterako, azaldu egiten deusagu dana dalako kantaren esangurea edo musika tresnearen jatorria.

**Izan be, zu Rafaël musikologo-
goa zara eta Ingrid antropo-
logoa.**

Bai, halaxe da, esan geinke Sweet Winds ez dala gure musika proiektu bakarra, bai, os-tera, garrantzitsuena, eta gure ezaugarri nagusia da musikea eta kulturea bertan alkarlotzea. Guk emonaldi tematikoak pres-tetan doguz, barbarako, bale-ehiztarien kantak, marinelenak, amodio eta desamodio kantak, tabernakoak... Guretzat, oinarria Europako baladea da, gu genero horren aztertzaileak gara. Gainera, hizkuntza asko-tako kantak ekarten doguz, in-gelese, frantsesez, alemanez, euskeraz, bretoieraz, gaelikoz...



*Arratia eraldaketa pro-
zesu bizian dago, ez gai-
tezan engainau, Arratiak
aspaldian itxi eutsan
“baserritarra” izateari*



**Orduan, Sweet Winds folk
taldea da?**

Jenteak pentsau leike baietz, batez be folk tresnak joten doguzalako baina, egia esan, eragin desbardin asko handik eta hemendik ekarten doguz, batzutan rocka, besteetan sinfonikoa... Ez gara musika mota bakar batera mugatzen. Gai-nera, folkak krisialdi larria bizi dau danean, jenteari gero eta gitxiago interesetan jako folk musikea.

**Nortzuk egongo zarie taula
gainean?**

Gu biok, Rafaël eta Ingrid, esan daigun 2015. urtetik partaide nagusiak garenok eta gugaz batera proiektu desbardinetan joten daben musikariak, Julia Iglesias “Zilan” eta Julen Murga hain zuzen be. Gainera, emo-naldi honetarako Zeanuriko auzokidea dan Guru kantaria-

ren kolaborazino estimagarria eukiko dogu. Ni gitarran ibiliko naz, eta Ingrid-ek gitarrea eta bodhrana hartuko dauz, baita ahots nagusia egin be. Bestalde, esan lez, Sestaakoa dan Julien Murga soinu-jolea egongo da gugaz, berau Euskal Herriko soinu-jole onenetarikoa da, Folketan, Hamaiketan Noiz, Paraninfo Trio eta Duo Naktê taldeetan ibilitakoa. Perkusinoan, eta ahotsean be, Julia Iglesia-sek jardungo dau. Julia, Extremadurakoa jatorriz, Berangon bizi da, musikari amateurra, gure aspaldiko laguna, Hego Amerikako Andeatako eta Mediterraneoko doinuen zalea.

Ibilbide luzeko musikariak zarie?

Bai, nik gitarreagazko zaletasuna txiki-txikitatik jaso neban aitaren partetik, baita osaba Emilioren partetik be. Aita bizkaitarra zan eta Gerra Zibilaren ondorioz Frantziara erbesteratu behar izan eban. Horregaitik, ni Frantzian jaio nintzan, eta musika frantsesa, espainiarra, italiarra eta batez be Hego Amerikakoa euki dodaz gogoko. Britainian emondako urteek folk musikara hurbildu ninduen. Ingrid, barriz, 70eko hamarkadako folkagaz zaletu zan Alemanian.

Jenteak batez be musikaritzat zaitue, baina...

Bai, “goiko musikariak” edo “goiko auzokideak” lez ezetan gaitue, Zeanuriko Undurraga auzunean bizi garalako. Baina guk beste alor bat beteten dogu, ikerketearena hain zuzen be. Arestian esan lez, ni musikologoa naz eta Ingrid antropologo *freelance* da. Urteetan Ameriketan zehar ibili nintzan grabazinoak egiten, hango herri doinuak jasoten. Horren frutua dira argitaratu nebazan zazpi diskoak, hiru Unescoren bildumarako. Une honetan nire artxibo guztiak Eresbil alkar-tearen esku itxi gura dodaz. Ingrid-ek Bizkaiko Foru Aldundiko etnografia atalean behar egin izan dau, ondare kultural eta materialaren alorrean. Hasi, Extremaduran hasi zan, harik eta bere aurreko bikotekideagaz Euskal Herrira etorri arte. Ni 1996an Euskadin finkatu nintzan eta 2004. urteaz gerostik bikote gara eta alkarre-gaz behar egiten dogu.

2007an Txoke izeneko taldea batera eratu genduan Europa osoko partaideakaz ondasun kulturala aztertze-ko. Hartu-emon handiak euki doguz Labayru, Etniker, Musiker eta Ankulegi taldeakaz. Enkarterrian eta Meatzaldean egindako gure ikerketek sona handia lortu dabe.



Musika zel-tikoa batzutan zuzena ez dan etiketea da

Eta oin Zeanurin bizi zarie.

Bai pandemia sasoiari Berangoko etxea itxi eta Undurragan baserria erosi genduan, gure proiektuak aurrera eroan ahal izateko. Aldaketa handia izan zan, ze, Berango daborduko landa mundutik urrun dago, berton, ordea baserri edo landa munduagaz atzera be, bat egin dogu. Inguruko jenteak ondo hartu gaitu, gauza “arraroak” egiten ei dabezan kanpoztar bi bagara be. Dana dala, esan behar da Zeanuri lehendik ezetan gendula, ni aitagaz 1996an ibili nintzan hementik, eta Ingrid 1982an bere aurreko bikotekideagaz egon zan.

Zer eskaini gura deusazue Arratiari?

Bertako ondare kulturala aztertu gura dauan jentearentzako plataformea edo sarea. Jente hori formatako prest gagoz,

ez dau zertan profesional izan, nahikoa da kulturazalea izateagaz. Gainera, ikerlerroa be ez da izan behar “gauza zaharrak” bakarrik aztertze-ko, baizik eta oingo aldaketen barri emon behar da antropologiaren ikuspegitik. Horretarako *podcast*-a abiatu gura dogu. Era berean, egiten doguzan grabazinoakaz, esaterako Santa Ageda inguruan egindakoakaz, dokumentala egiteko asmoa daukagu.

Arratia zer da, bada, zuentzat?

Leku berezia, inondik be, esan daigun Arratia gaur egun “tar-teko lurraldea” dala, Bilbo eta Gasteizen artean dagoana, uri handi biren erdian, erresidentzial izaera emoten deusana. Bestalde, Arratia eraldaketa prozesu biziari dago, ez gaitezan engainau, Arratiak aspaldian itxi eutsan “baserritarra” izateari,

eta oin sasoi post-industrial bete-betean dago, “terzerizazino” handia gertatu da; hau da, arratiar askok sektore publikoan egiten dabe behar, Arratiatik kanpo gainera. Turismoak berak be gero eta garrantzia handiagoa dauka. Gure moduko “neoruralak” be erakarten dauz. Baina, aldi berean, Arratiak sano ohitura sakonak gordetan dauz, Santa Ageda berbarako. Eta garrantzitsuena, euskerea, hizkuntzea da, duda barik, jagon behar dana.

Beraz, zuen moduko “kanpoztar” bik zer emon leikie?

Gure ezagupen eta eskarmen-tuez gain, kanpoko begirada kritikoa, eta aldi berean, neutrala analisiak eta konparaketak egiteko, batez be kultura alorrean. Batzutan, begirada hori guztiz beharrezkoa da.

Giro lasaia eta atsegina tabernan
Tragoak, musika ona eta zuzeneko kontzertuak!
Bariku eta zapatuetan, 20:00etatik 23:00etara lagunartean jateko errazioak.

Jantokiko proposamena
Jantoki atsegina, giro lasaia, betiko platerak, ogitartekoak, hanburbesak eta errazioak eskaintzen ditugu egunero, 13:30etik 15:30era eta bariku eta zapatuetan 20:00etatik 23:00etara.

aldamin jatetxea

HEGOKO ORDUTEGIA
Astelehena: 08:30 – 23:00
Martitzena eta eguaztrena: ITXITA
Eguena: 08:30 – 23:00
Barikua: 08:30 – 02:00
Zapatua: 11:00 – 02:00
Domeka: 11:00 – 23:00

Bartolome Deunaren kalea, 4 Areatza
691 263 083 (Mayra) - 669 922 469 (Karmele)
aldamin.jatetxea.areatza@gmail.com
@aldamin.jatetxea

BESTE MUNDU BAT

feminismotik

BORROKA eta ANTOLAKUNTZA
MARTIAK 8 - ANDRAZKOEN NAZIOARTEKO EGUNA

ERROTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

BESTE MUNDU BAT FEMINISMOTIK.

BURRUKA ETA ANTOLAKUNTZA



ZEANURI



BESTE MUNDU BAT FEMINISMOTIK

BURRUKA ETA ANTOLAKUNTZA

Martxoak 8, Andren Nazioarteko Eguna



MENDIA

Kolazinoko Mendi Eguna martiaren 14an

Hamargarren edizino honetan 650 parte-hartzaile egongo dira eta Euskadiko Txapelketea zein Euskal Herriko Kopea egongo dira jokoan.

Asier Abrisketa

Martiaren 14an egingo dan Kolazinoko Mendi Egunean hiru lasterketa eta martxa bat dagoz antolatuta eta izen-emotea martiaren 4an zarratu behar bazan be, ia hilebete arinago ipini zan sold out kartela. Beraz, Bedian ospatuko dan mendi eguneko giro ona ziurtatuta dago eta gainera, Euskadiko Mendi Lasterketen Txapelketea eta Euskal Herriko Kopa be egongo dira jokoan. Lasterketa luzean 300 eta laburretan 200 korrikalari eta mendi-martxan 150 parte-hartzailek hartuko dabe parte. Honeei lagun eta familiak gehitu ezkeru, egun biribil bat espero da Bedian. Pasau dan urtean, edurra eta lupetza izan ziran protagonista, oingoan, ikusteko dago.

Esan moduan, martiaren 14an Mandoia (638 m) tontor nagusi moduan izango dauzan lasterketa bi eta martxaz gainera, gazteentzako lasterketea be ko-

rriduko da. Bediatik urtetan lehenengoak mendi martxakoak izango dira, 08:00etan, 16 kilometro eta 800 metroko desnibeleko bidea egiteko. Lasterketa luzea 10:00etan urtengo da eta 24 kilometro eta 1.511 metroko desnibela dauka. Laburra 11:30ean urtengo da, 17 kilometro eta 1.002 metroko desnibela daukaz. 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzako lasterketa laburragaz batera, 11:30ean, urtengo da eta 13 kilometro eta 700 metroko desnibeleko ibilbidea prestatu da.

Txiki lasterketea domekan

Lasterketa eta martxa nagusien hurrengo egunerako, Kolazinoko Mendi Eguneko antolatzaileek txikerrenentzako lasterketak be antolatu dabez. Izen-emotea doban egin dai-teke sportsmaniacs.com webgunean. Lasterketa bi egingo dira, bata hiru kilometrokoa eta bestea bost kilometrokoa. Biak urtengo dira 11:00etan.



FUTBOLA

Andrazkoen Arratia B taldeak baino ez eban irabazi atzen jardunaldian

Lemoako Harrobik bardindu egin eban eta gizonezkoen Arratia Ak eta Bk galdu. Andrazkoen Arratia Ak atsedena izan eban.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia B taldeak 6-0 irabazi eban zezeilaren 28an Betiko Neskak B taldearen kontra etxean. Honeek izan ziran 6 golen egileak: Alaitz Zelestino (4. minutua), Miren Gordo (26. minutua), Zelestino (40. minutua), Uxue Aurtenetxe (49. minutua), Aurtenetxe (52. minutua) eta Matxalen Gonzalez (87. minutua). Zelestino kategoriako pitxitxia da 23 golegaz. 19 jardunaldiren ostean 44 puntu ditu Arratia Bk eta bigarren postuan dago. Datorren partidua hilaren 14-15eko astegoienean jokatu dau Ezkurdi taldearen kontra Urbietan.

Andrazkoen Arratia A taldeak atsedena izan eban joandako astegoienean. Saillapenean bigarren postuan dago Athletic C liderragaz bardinduta. Datorren partidua sano garrantzitsua da, Urbietan jokatu dau eta irabazi ezkeru barriro lider ipiniko litzateke bigarren saillatuari hiru puntuko aldea aterata ligea amaituteko lau partiduren faltan. Partidua hilaren 8an jokatu da eguerdiko 13:00etan.

Gizonezkoen Arratia A taldeak zezeilaren 28an jokatu eban etxetik kanpo Apurtuarte taldearen kontra eta 1-0 galdu eban. 23 jardunaldiren ostean 39 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago, igoera postuan; halanda be laugarren saillatua dan Mungia A puntu bakarrera dauka oin. Datorren partidua Urbietan jokatu dau bigarren postuan dagoan Galdakao A taldearen kontra hilaren 8an, 15:45ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak martiaren 1ean jokatu eban Urbietan Lekeitio A taldearen kontra eta 0-1 galdu eban. 23 jardunaldiren ostean 20 puntu ditu Arratia Bk eta hamalaugarren postuan dago. Datorren partidua

derbia izango da Arlonagusian Lemoako Harrobi taldearen kontra jokatu dau ta hilaren 7an, 17:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako taldeak zezeilaren 28an jokatu eban etxetik kanpo Padura B taldearen kontra eta husna bardindu eban. Etxeko taldeak penalti bat huts egin eban bigarren zatian. 23 jardunaldiren ostean 47 puntu ditu Lemoako Harrobik eta hirugarren postuan dago, igotea ahalbidetzen dauan bigarren postuan dagoan Ermua taldearengandik puntu bira. Datorren partidua derbia izango da Arlonagusian Arratia B taldearen kontra jokatu dau ta hilaren 7an, 17:00etan.



PELOTEA

Binakakoaren finalaurrekoetara sailkatu dira Aldai eta Arrillaga

Asier Abrisketa

Hilaren 1ean, Igorren jokatu eben Amaia Aldaik eta Miriam Arrillagak

Emakume Master Cup zirkuituko Eskuz Binakako Txapelketako ligaxka faseko atzen partidua. Olatz Arrizabalaga eta Arrate Bergararen

kontra jokatu eben baina Aldaik adierazo ebanez, "ez zan geure eguna izan"; 22-2 galdu eben. Halanda be, sei partidutik lau irabazi eta bi galduta, ligaxka fasea gainditu eta finalaurrekoa jokatuteko aukerea izango dabe. Agurainen jokatu dira finalaurrekoak martiaren 8an, eguerdian. Bertan Arrizabalaga eta Bergara, Ruiz de Infante eta Mendizabalen kontra arituko dira eta Sagardui eta Gaminde, Aldai eta Arrillagaren kontra.

Dirakizko Herri lasterketarako

Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

MENDIA

Ganzabal Mendi Taldeak aurten be dakar Mendi Film Festivaleko onena

Martiaren 6an lau film labur proiektauko dira eta 13an, beste lau.



Aldabide filmak Itzinako barrunbeak erakusten ditu, Gorbeian.

Asier Abrisketa

BBK Mendi Film Festivalen Mendi Tour ekimenaren baitan, mendia- gaineren gaineko laburmetraien birea martxan dago aurten be. Urtero lez, Lemoako Ganzabal Mendi Taldeak Igorreko Lasarte Aretora ekarriko dauz filmetako batzuk eta saio bi egindako dira, martiaren 6an eta 13an, biak bar- riku. Saioak 19:30ean hasiko dira, gitxi gorabehera 21:30era arte eta bakotxean lau film egongo dira ikusgai. Sarrerea doban izango da. Lehenengo saioan *Un día al año*, *Izarren Zaunka*, *Le Moulin des Artistes* eta *Un printems au Mont Blanc* proiektauko dira eta bigarrenetan, *Aldabide*, *Dear Superhero*, *Into Altai* eta *K2 Mon Amour*.

Un día al año (Alfonso Garcia, 2025)

Euskal Herria, 16 minutu. 1970az geroztik, Atxarteko bailaran eskalatzaile belaunaldi barri bat bildu ohi zan mendiagazko grinak erakarrita. Nazinoarte mailako igoera aitzindariak egi- tera be ausartu ziran eurretako batzuk. Eurretako batek errepide istripu larri bat jasan eban, eta medikuek esan eutsien ez ebal- a inoz barriro eskalauko. Osatze prozesu miragarria izan eban, ordea, eta tradizio berezi bat asmatu eban berbizte moduko ha ospatzeko: Atxarteko Inaute- ria. Geroztik, eta urteak joan ur- teak etorri, egun hori ezinbeste- ko hitzordua da eskalatzaileen komunitatearentzat.

Izarren Zaunka (Nagore Ecei- za, 2025)

Euskal Herria, 18 minutu. Lagun bi Larraitzen dagoz, Mikel Saez de Urabainek Txindoki mendian

sortu barri dauan bide bat es- kaletako asmoz. Mikelek berak, bide barria izentetako inspirazi- noa aurkitu gura dau tokiko bake eta lasaitasunean. Iker Urangak, barriz, bere min kronikoetatik eta ansiedadetik askatzea lortu gura dau.

Le Moulin des Artistes (Pierre Cadot, 2025)

Frantzia, 25 minutu. Peterrek eta Anatik *Le Moulin des Artistes* zuzenduten dabe Chamonix ha- raneko XVI. mendeko errota ba- ten: eski-tailerra, arte-gunea eta ideologia antzekoa daukien espi- ritu askeko lagunuen topagunea. *Le moulin des artistes*-ek bizitza sormenari eskaintzen jakonean gerta leitekeana erakusten deus- ku, izan Peterrek eskuz egindako egurrezko eskiakaz, izan Anatiren pintura zein musikeagaz. Sormen espresinoak helburu barriak bi- deratzen lagundu daike, komuni- dade iraunkor bat eregiteko balio daike, eta hondamendiak gain- ditzeko kemena be emon daike.

Un printems au Mont Blanc (Bertrand Delapierre, 2025)

Frantzia, 38 minutu. Benjamin Védries eskiak hartuta joango da Chamonixera udabarri osoa han egiteko, penditza pikuetako maldetan jatsierak egiteko apro- posena dan sasoi baliatuaz. Esperientzia eta talentua buztar- tzen dauzan bikotea osotuko dau Nicolas Jean lagunagaz, eta erronka barri bat imajinau eta burutuko dabe: Mont Blanc-eko zeharkaldi osoa hiru egunetan, puntako hamaika jatsiera eginaz.

Aldabide (Jon Mendizabal, 2025)

Euskal Herria, 12 minutu. Oskar Etxebarría (ADES) eta Carlos

Arranz (Takomano) espeleo- logoak Itzina mendigunearen barrunbeetan murgilduko dira, Gorbeia-ko bihotzean. Lurrazpian ostendutako mundu bat da, ba- rrutik hutsa, eta sarbidea ur putzu estu baten daukana. Zerk erakar- ten dauz kobazuloetako urpekari honeek bertara? Euren grina, ob- sesinoa eta naturareagazko dau- kien sentimentu sakona ezetuko doguz.

Dear Superhero (Corinna Hal- lorán, 2025)

Zeelanda Barria, 14 minutu. Jani- na Kuzma eskiatzaile profesiona- lak haurdun geratzeko arazoak izan ebazan ia urte biz. 2024 hasieran heldu zan haurdunaldi test positiboa, eta haregaz batera galdera barriak be sortu jakozan: zelan alda daike haurdunaldiak mendiagazko bere loturea? Men- diko gidari lana galduko leuke? Atleta profesionala zanez, epai- tua izan eitekean? Ba, Prezeski mendian aurkitu eban bakeak lagundu eutsan bildur horreei aurre egiten. Atleta profesional bi, Leanne Pelosi snowboarderra eta Evelina Nilsson eskiatzailea, lagun eukazala, Zeelanda Barriko Hegoaldeko Alpeetara jo eban eskiatzera, eta han amatasuna- ren super-podereak deskubridu ebazan.

Into Altai (Yannick Boissenot, 2025)

Frantzia, 37 minutu. Mongoliako Altaiko Tavan Bogd mendigunera jo dabe Camille Armand, Pierre Hourticq eta Victor Daviet eski- atzaileek. Mendiak eta urruneko lurralde ezezagunak exploretea maite dabe. Tavan Bogd edo 'Bost Mendi Sakratuak', sinbolismoz eta kondairaz betetako mendigu- nea da. Aste biz, yurta bat kanpa- leku nagusi daukiela, eskietan eta snowboardeko tauletan lurralde ha exploretako aukerea izango dabe. Baina, egiaz, zer da mendi hareetan bilatuten dabena?

K2 Mon Amour (Mathieu Ri- voire, 2025)

Frantzia, 40 minutu. 2024ko udan, Liv Sansoz eta Zeb Roche K2 ton- torrera igon ziran, 8.611 metrora, oxigeno artifizialik erabili barik, eta amets zoro bategaz: parapentean alkarregaz hegaz egitea gailu- rretik saltu eginda. Istorio hau K2 mendia- ren edertasun basati eta gailurrera igoteko saiakeratik harago.

FRONTENISA

Zabalik dago Igorreko Jaietako Frontenis Txapelketako izen-emotea

Asier Abrisketa

Bagilaren 5etik 14ra ospatuko dira aurtengo Igorreko Jaiak eta aurten, lehenengoz jokatu- ko da frontenis txapelketa bat. Txapel- ketako partidua aurretik, maiatzean zehar, jokatu- ko dira eta jai- tan, finala egongo da jokoan. Holan, izen-emotea martian zehar egongo da zabalik, hilaren 31ra arte, <https://labureus/frontens- jaiak26> estekako galdetegian. Herrian zehar ipini diran karteletan be eskaneau daiteke bertako QR kodea. Igorreko Jai Batzordetik azaldu dabenez, txapelketea adin guztietarako aproposa da eta izen-emotea bikoteka egin behar izango da.



PELOTEA

Izen-emotea zabalik Dimako Jaietako XI. Pelota Txapelketan

Asier Abrisketa

Dimako Jai Batzordeak hamaikagarren urtez antolatu dau Dimako Jaietako Pelota Txapelketea eta daborduko, izena emon daiteke 688 653 473 telefonoan martiaren 22ra arte. Antolatzaileek BEGI- tun azaldu dabenez, partidua apirlean hasiko dira jokatu- ten eta hiru mailako finalak barriz, Dimako sanpedroetan jokatu- ko dira. Atzen urteetan lege- z, hiru kategoria izango ditu txapelketak: Kris- tauak, Lamiak eta Jentilak.

Kristauen kasuan, bikotekideetako bat be ezin izango da fede- raua izan, bikotekideetako bat gitxienez dimoztarra izan behar da eta doban da izen-emotea; zozketea egingo da ligaxka faseagaz hasteko. Lamien txapelketea ostera andrazkoentzako da, izen- emotea doban da eta honetan be, zozketea egingo da ligaxkako partidua ebazteko. Jentilen txapelketan barriz, bikotekideetako bat federaua izan ahalko da, bikote bakotxeko izen-emoteak 10 euro balio dauz eta hau, kanporaketa bitartez jokatu- ko da.



JANTZALDIA

Etzanderak andra taldeak bere atzen jantzaldia egingo dau etxean

Martiaren 7an, 19:00etan egingo da Zeanuriko frontoian *Akaberea da-ta...* jantzaldia.

Asier Abrisketa

Oin hamabost bat urte hasi ziran Zeanuriko hainbat andra jantzan egiteko alkartuten eta hortik sortu zan Etzanderak taldea. Ordutik, hasieran hainbat jantza emonaldi egin ebezan eta gero, ikuskizun bi prestatu ebezan, herriz herri aurkeztuten ibili ziranak: *Txirrintxanketak* lehenengo eta gero, *Zantigitu guztien gainetik*. Martiaren 7an egingo dabe atzen jantzaldia, 19:00etan Ibarretako frontoian taldea desegin aurretik. *Akaberea da-ta...* izeneko ikuskizuna, aurreko lanetako jantzen bildumatxo bat da, taldetik begitun azaldu dabenez.

Ikuskizun honetarako, lehena-goko jantzari batzuk be bueltau dira taldera eta guztira, 17-18

jantzari izango dirala azaldu dabe taldetik. Adin tarte zabala daukie Etzanderak-eko jantzariek, gazteenak 16 urte ditu eta nagusienak, 60tik gora. Holan, BEGITUN azaldu dabe sano gatx egiten jakiela danak batera jantzan egin eta entsegatuteko geratutea eta hau izan da taldea desegitea ebazteko errazoi nagusia. Eta agur esateko, zer eta jai bat ospatutea baino hobeto!

Zozketa berezia

Atzen ikuskizuna dala-ta, bertako produktuakaz osotutako saski baten zozketea antolatu dabe. Txartelak euro baten truke dagoz salgai herriko taberna eta dendetan, eta zozketea martiaren 7an egingo da, ikuskizunean zehar Zeanuriko frontoian.



Etzanderak taldeko jantzariek *Zantigitu guztien gainetik* ikuskizunean.

LITERATUREA

Karmele Mitxelena egongo da martiko Arteako Irakurleen Txokoan

Asier Abrisketa

Hilaren 4an egingo da martiko Arteako Irakurleen Txokoko saioa, 19:00etan Kultur Etxean. Alaine Agirre idazleak oingo saiorako aukeratutako liburua Karmele Mitxelenaren *Zoriona, edo antzeko zerbait* (Elkar, 2024) eleberria da eta idazlea bera Artean egongo da, dolua eta maitasaunalango gaiak jorratuten dituan istorioa aurkeztuten. Liburuak, andra alargundu barri baten bizitzeari barriro irribarre egiteko gogo eta

gogoetak batzean ditu.

Holan dino sinopsiak: "Mediterraneora etorri da andra alargundu barria. Doluaren zamak atzean itxi gura leukez, itsaso bareago honetako ur urdinetan jolastu. Bizitzeari barriz egin irribarre, bizitza barri bateri esan ondo etorri. Bidaia fisiko eta psikologiko bat dakarkigu eleberri labur eta hunkigarri honek, betiko gai giltzarrietan pausalekuak eginaz: maitasuna, heriotzea, seme-alabak... mundu honetako gure igarotzeari zentzua emoten deutseenak.

ZINEKLUBA

Memorias de un cuerpo que arde martiko Igorreko Zineklubean

Hilaren 18an proiektauko da andra nagusien sexualidadeaz berba egiten dauan filma.



Asier Abrisketa

Hileko Igorreko Zineklub saioa martiaren 18an, eguaztena, egingo da Lasarte Aretoan betiko lez, 20:00etan hasita. Oingoan aukeratutako filma *Memorias de un cuerpo que arde* Antonella Sudasassi Furniss costarricarrar zinema zuzendariaren 2024an estreinautako film dramatikoa da. Andra nagusien sexualidadearen birraurkuntzearen gainean egiten dau berba pelikuleak eta honen gainean solasalditxo egingo aukerea be egongo da.

Errealidade kutsu sakonak dituan istorio honek hainbat sari eta izendapen garrantzitsu izan ditu. Holan, Berlingo Nazinoarteko Jaialdiko publikoaren saria eta Zinema Iberoamerikarraren Platino Sarietako zerrendako aktore onenaren saria (Liliana Biamonte) irabazi ebazan. Horrezaz gainera, 2025eko Goya Sarietako pelikula iberoamerikar onenaren izendapena eta Platino Sarietako gidoi onenaren eta aktore onenaren izendapenak be izan ebazan, beste batzuen artean.

te) irabazi ebazan. Horrezaz gainera, 2025eko Goya Sarietako pelikula iberoamerikar onenaren izendapena eta Platino Sarietako gidoi onenaren eta aktore onenaren izendapenak be izan ebazan, beste batzuen artean.

Sinopsia

Sexualidadea tabua zan garai errepresibo batean hazi ziranez, 70 urteren bueltan dagozan Ana, Patricia eta Mayelak arauetan eta itxaropen inplizituetan oinarritu eben andra izateak zer esan nahi dauan. Oin argi eta garbi berba egitera ausartzen dira. Hiruren oroitzapenak, sekretuak eta irrikak modu poetikoan alkartzen dira: andre beren istorioak pantailatik kanpo kontetan dabezan bitartean, euren belaunaldiko beste emakume baten gorputza osotuko dabe.

IKUSKIZUNA

Umorea betaurreko moreak jantzita

Martiaren 7an, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai *ZtandaP* ikuskizuna taularatuko dabe Igorren.

Asier Abrisketa

Martiaren 8an ospatu eta burukatuko dan Andra Langileen Nazinoarteko Egunaren bueltan, hainbat izango dira feminismoa ardatz izanda egingo diran jarduerak. Berbarako, martiaren 7an Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek, bakarriketa estiloko *ZtandaP* ikuskizuna taularatuko dabe Lasarte Aretoan, 19:30ean. Obra hau 2023ko zementian aurkeztu zan eta ordu-

tik, arrakasta sano handia izaten dabil areto, plaza eta tabernatan.

150 emonalditik gora egin ebezan *Luze edo motz* aurreko ikuskizunetan egin moduan, Martiarena eta Torregarai "betaurreko moreak jantzita" igongo dira oholtzara. Orgasmo arrakala, maitasun erromantikoa, "señorak", alkarbizitza... izango ditue berbagai, besteak beste. Kritika eginaz, deseraikiz, barre eginaz eta egin arazoz eztandarazo, lehortu, gura ditue bazterrak.


LITERATUREA

Gorka Erostarberen Auzokinak landuko da Igorreko Literatura Tailerrean

Asier Abrisketa

Hilero lez, hileko hirugarren astelehenean egingo da Literatura Tailerreko saioa, martiaren 16an 17:00etan. Esti Vivanco idazleak gidatuten ditu Igorreko Kultur Etxeko goiko gelan egiten diran saioak eta oingo langaia, Gorka Erostarberen *Auzokinak* (Elkar, 2025) poema liburua izango da. Kazetari eta idazle zumarragarren poemategiak auzoaren begirada poetiko bat eskaintzen deutso irakurleari. Pandemia sasoiari hasi zan poemak idatzen eta ordutik idatzitako poemakaz osotu eban liburua.

"Hurbilekoaren errebindikazio poetiko bat da *Auzokinak*: auzoarena, eremu geografiko gisa, baina hortik gora beste hainbat gauza be bai: xumetasunaren gorazarre bat, giza harremanak estutzeko dei bat, bizimodu geldoagoa eta denpora gehiago izateko eskea, naturearen eta naturaltasunaren laudorioa; hori guztia eta gehiago, pop pilula batzukaz eta samurtasun eta umore dosiakaz batera", dino sinopsiak. Erostarbek berak barriz, ariketa poetiko bat moduan hartzean dau liburua: "Ariketa hori etxetik urten, igogailua hartu, atarira jatsi eta auzoaren parez pare jartzea izan da, begirada poetiko batetik".



LABURBIRA

Areatzan eta Igorren proiektauko dira XXIII. Laburbirako filmak

Areatzan martiaren 13an izango dira zazpi film labur aukeratuen proiektzinoak eta Igorren, hilaren 21ean.



Erreka zoko hortan filmaren fotograma.

Asier Abrisketa

Laburbira film laburren zirkuitu ibiltaria martian zehar herritz herri ibiliko da Euskal Herrian eta gurean, Areatza eta Igorren egongo da aukeratutako euskerazko zazpi laburmetraiak ikusteko aukerea. Aurtengoa hogeta hirugarren edizinoa izango da, euskal zinema-gintza huspotutea eta herritarrei euskeraz sortutako film laburrak ezetuarazoteko helburua dauka

jaialdiak. Areatzan, hilaren 13an 19:00etatik aurrera proiektauko dira filmak udaletxean eta Igorren, Lasarte Aretan, 21ean, izango da emonaldia 20:00etatik aurrera. Emonaldiak Zertu Kultur Elkarrekin antolatuko ditu Areatza eta Igorrenko Udalen babesagaz.

Olentzerori eskatu nion (Amaia San Sebastian, 2025)

Gauero hotel desbardin bat. Atzen larru jotea eta maitalearen begi

hutsatara atzen begiradea. Andra bat igesean. Gauero alkarriketa bardina, denpora milimetrauan. Nazkatu zan egunean euki eben atzen alkarriketea.

Erreka zoko hortan (Ekaitz Bertiz, 2025)

Aita ohean gaixo dauka Joxepik, Iparragirre baserriko alaba zaharrena, eta bere gain hartu beharko dau haren egitekoa: kontrabandoan pakete astun bat garraiatzea

Frantziako mugaren beste aldera. Gau baltzean, karabineroak ez dira basoak ostenduten dauan arriskurik bildurgarriena...

Fischy (June Asua, 2025)

Kale zikinetan barrena, goseak jota dabilen katu bat arrain baten bila doa, eta badirudi topau dauala altxorra! Usteak erdia ustel, ordea. Kanean, itxurak engainagarriak izan daitezke...

A-Maniki (Elixabet Nuñez, 2025)

Adineko andra bat mundu digitalera ezin egokituz bizi da. Hainbeste, non astiro-astiro desagertuz doan gizartetik...

Geratzen den hori (Aitor Gametxo, 2025)

2011n ama hil ostean, zuzendariak bidaia intimu bateri ekingo deus haren objektu personalen eta oroitzapenen bitartez. Film labur dokumental honek dolua eta gaixotasuna eta honek duintasunagaz, zaintzeagaz eta transmisinoagaz daben loturea aztertzen dau.

Orain zer? (Ainhoa Urgoitia, 2025)

Bularreko minbizia izan daben andrei ahotsa emonaz, gizartean gorputzaren inguruan eregitako zenbait arauk andrei zelan eragiten deusien erakusten dau dokumental hunkigarri honek.

Hortzikara (Ane Cuesta, 2025)

Haginak jausi eta barriz be ateraten ez jakozan neskato baten ama itxaropena galduta dabil. Konturatuten ez dan arren, bere alabearen arazoan jatorria uste baino gertuago dago...

BERTSOLARITZEA

Musika elektronikoa eta bertsoak buztartuko dira Lemoan

Asier Abrisketa

Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak Libe Goenaga, Manex Pagola eta Aner Peritz "Euzkitze"-k bultzatutako Itzali eta Piztu bertso emonaldia egingo da martiaren 13an, 20:00etan. Aparteko bertso-saio honek lehenegoz buztartu ditu bertsoa eta musika elektronikoa eta 2025eko urrietatik eta gero, arraskastea izaten dabil areto eta plazetan.

Emonaldi honeetan reggaeton, reggae, balada, cumbia eta pop doinuak bat-bateko bertsoakaz buztartuten dira. Horrezaz gainera, bertso-doinutegi tradizionalaren ondarearen parte diran doinuak be bersionauko dabez musika elektronikoaren bitartez, erritmo barrietara ekarrit eta ahots efektuak baliatuta.

Kantauko daben bertsolariak Oihana Bartra Arenas bilbotarra, Bertsolari Txapelketa Nagusian zein Bizkaikoan eskarmentu handikoa; Haizea Arana Cardenal eskoriatzar eta Aitor Tatiegi Loidi oñatiar gazteak dira. Gai-jartzaila barriz Idoia Anzorandia Kareaga izango da eta musikearen arduradunak Libe Goenaga Arrieta eta Manex Pagola Apezetxea.

DUNBA

Kultur Astea Arratia Institutuan



Jon Urrutia, Maddi Ane Txoperena eta Lide Hernando "Bele".

Arratia BHI Institutua

Martiaren 23ko astean Kultur Astea antolatuko dogu Arratia Institutuan, komunitate osoa alkaritzeko eta kulturea, sormena eta

konpromiso soziala ardatz izango dituan egitarau aberatsagaz. Aste zehar era askotako ekintzak izango doguz, irakasle, guraso eta ikasleen parte-hartzeagaz.

Alde batetik, GIHak lantzeako

azoka solidarioa egingo dogu: moda azkarraren inguruko gogetea, espezie inbaditzaileen arazoa (liztor asiarra), bertako argizariagaz egindako pomadak eta mobikortasun jasangarria bi-

zikletearen bidez jorratuko dira.

Bestetik, plogging saioa antolatuko dogu, hau da, zaborra batuko dogu galapan ahalik eta arinen eta ostean unibersidadeko irakasle batek plastikuen bererabilpenari buruzko berbaldia eskainiko deutse satsa batzean ibili diranei.

Urtero egiten dogun moduan, institutuko ikasle artistek euren emonaldiak aurkeztuko ditue, eta Lide Hernando "Bele" zein Jon Urrutia Trakamatraka artisten berbaldiak izango doguz.

Horrezaz gainera, Batxilergoko bigarren mailako ikasleek antolatutako Zirti-Zarta lehiaketan irakasleok parte hartuko dabe. Ohitura bihurtu da irakasleak egoera konprometiduan ipinteko lehiaketa hau, non jantzatu, mimika egin eta arlo desbardine-

tako galderak erantzun beharko dituen.

Bertsolaritzak be leku berezia izango dau, Maddi Ane Txoperenaren berbaldiagaz; eta horregaz estu lotuta eguaztenean Galiziako gazte batzuk etorriko dira egun biz gugaz egotera; regueifa egileak dira eta gure bertso ikasleak arituko dira. Azkenik, barikuan Korrika Arratiatik pasauko da, eta galiziarraz batara kaleetara aterako gara inprobisazinoak egitera, aste parebako bateri amaierara emotera.



AGENDEA

MARTIAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

ARTEA

Atzen eguna. Hilaren 6ko Herriko Bentako andren afarirako txartelak erosteko.

Oin eta behatzen estetika zerbitzuan hitzordua hartzeako: 615 747 050 (Mari Cruz). Zitat martiaren 16 eta 17rako.

18:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldia, tranpen barritzea eta erakargarrien banaketea. Kultur Etxean.

BEDIA

Apirilaren 17ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako proposamenak aurkeztuteko aukerea. Informazino gunean.

Martiaren 13ra arte, Txiki-txoko (bagilak 9-garagarilak 10), Udaleku (bagilak 9-garagarilak 10), Uda Gaztea (garagarilaren 7tik 11ra Alpeetan), zirkua/ ipuin kontaketa edo patinaje/robotika tailerretan (garagarilak 13tik 24) izen-emotea. Informazino gunean 16:30etik 19:30era.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Gazte Barri Dantza Taldeak jantzetarako erropak sortuteko jostunen laguntzea behar dau eta tailerrak egingo dira. Josten jakin ezkerro idatzi gaztebarri@gmail.com helbidera.

Martiaren 22ra arte, Dimako Jaietako XI. Pelota Txapelketan izena emoteko epea, 688 653 473 telefonoan.

Martiaren 27ra arte, Dimako Gazte Barri jantza taldeak maiatzaren 23an ospatuko dauan 30. urteurrenako ekitaldian jantzeri ohiek izena emoteko epea, gaztebarri@gmail.com-era idatzita.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

2026ko Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketea martxan. Martiaren 31ra arte aurkeztu ahal dira lanak. Kultur Etxean.

Martiaren 31ra arte, Igorreko Jaietako I. Frontenis Txapelketan izena emoteko epea, <https://labur.eus/frontenisjaiak26> estekako galdetegian. Partiduak maiatzean jokatuko dira.

Arratiaren Aste Santuko Futbol Kanpusa. Martiaren 20ra arte emon daiteke izena martiaren 30 eta 31n eta apirilaren 1ean Igorreko Urbieta zelaian egingo dan kanpusean. Izena emoteko 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara deitu edo cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuco dan Ubidestroi Trail 2026an izen-emotea zabalik *kronoak*

com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Martiaren 14an egingo dan Aguraingo Araia sagardotegira joateko izen-emotea autobusa bete arte 699 723 606 telefonoan. Joko Alaiko bazkideek 50 euro, besteeek 65 euro.

Gorbeia Suzien Skyrace-ko aurreinskripzioa zabalik martiaren 22ra arte www.gorbeiasuzien.eus webgunean.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

MARTIAK 4

ARTEA

Irakurleen Txokoa. 19:00etan, *Zoriona, edo antzeko zerbait* (Elkar, 2024) liburua Karnele Mitxelena idazleak aurkeztuta eta Alaine Agirrek bideratuta.

DIMA

18:30ean, liztor asiarraren gaineko berbaldia, tranpen barritzea eta erakargarrien banaketea. Abaroa Aretoan.

19:00etan, Dimako alkarteen arteko koordinazino bilerea. Udal Pleno Aretoan.

MARTIAK 5

AREATZA

17:30ean, *Loa* berbaldia. Alvaro Villasevil Areatzako medikuaren eskutik jubiladuen lokalean. Uparan alkarteak antolatuta.

DIMA

19:00etan, Arratiako 24. Korrikaren aurkezpena. Jubiladuen lokalean.

IGORRE

19:00etan, Zaztaparrak Asti Taldearen Lekeitioko udaleku itxien gaineko bilera informatiboa. Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, Onintza Enbeitaren *Bizitza baten txatalak* liburuaen aurkezpena. Kultur Etxean.

MARTIAK 6

ARANTZAZU

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna.

20:00etan, bertso-poteo feministea. Montero tabernatik.

ARTEA

17:00etan, *Edadismoa* berbaldia, Ibon Onaindia psikologo eta neuropsikologoaren eskutik. Kultur Etxean.

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, Irati Astondoa eta Uxue Ansorregiren herri kirol erakustaldia plazan; 19:00etan, Harriti taldearen harri proba erakustaldia; 21:00etan, andren afaria Herriko Bentan: barazki kremea, lasagna (okelazkoa edo begetala) eta pantxineta. Txartelak salgai martiaren 3ra arte; 20 euro.

BEDIA

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 16:30etik 18:30era, *Andrentzako ile-apaindegi zoroa eta kafea* tailerra (izena emon behar izan da); 18:30ean, andra eta ludotekako umeek egindako apaingarriak ipintea.

DIMA

19:00etan, Abel Ariznabarretaren *Burdinoleta*ko *gabi-hotsa* *Diman (1440-1875)* liburuaen aurkezpena, Andoni Egaña eta Gari Otamendigaz. Eskolako kamanan.

IGORRE

19:30ean, Mendi Film Festivalaren Mendi Tour saioa: *Un día al año, Izarren Zaunka, Le Moulin des Artistes* eta *Un printemps au Mont Blanc*. Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren *Paradisua eta katuak* emonaldia. Kultur Etxean.

ZEBERIO

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, 8 urtetik gorakoentzako harriak margoztuteko *Bardintasunezko istorio harriarriak* sortzeako tailerra.

MARTIAK 7

AREATZA

III. Ganbara Feminista: 10:00etan, harrera eta gosaria Laminetxe Gaztetxean; 11:00etan, tailerrak: mural margoketa kolektiboa eta *Aliantzak josiz*; 13:00etan, mahai-ingurua: *Beste Arratie bat feminismotik*; 15:00etan, bazkaria udaletxeko arkupeetan; 17:00etan, bertso-saio musikatua arkupeetan: Aissa Intxausti, Oihana Arana eta Aner Peritz; 19:00etan, Rally Poteoa; 22:00etan, ekitaldi feministea Laminetxan; 22:15ean, karro-poteo girotua Laminetxetik hasita; gero, MJ



Sar dadila kalabazan ipuin kontaketea Igorren

Martiaren 5ean, 18:00etan, Igorreko Liburutegian Ines Bengoa ipuin kontalari nafarra egongo da, *Sar dadila kalabazan* kontaketea herriko umeentzako antzeztuten. Saioa bost eta hamabi urte bitarteko umeentzako dago gomendauta eta Bengoak dinoanez, "herri ipuinez" osotutako saioa da: "Betiko ipuinak, belaunaldiz belaunaldi zabalauta". Kontalariak zehaztu dauanez, ez dira Txanogorritxu eta Edurnezuriren istorioak: "Ahaztutako personaia asko dago gaur egungo umeak liluratu eta tarte on bat pasetako aukerea eskainiko deutsienak".

Ganbara Laminetxan.

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 12:30ean, bertsolariak Balkoitik balkoira Oihana Bartra eta Ane Labakagaz. Gai-emoilea Maider Larrea. Ostean, argazki herrikoia. Gudarien Plazan.

IGORRE

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 19:30ean, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen *ZtandaP* bakarriketea. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

19:00etan, Etzanderak jantza taldearen *Akaberea da-ta...* emonaldia. Frontoian.

ZEBERIO

11:00etan, liztor asiarraren gaineko berbaldia, tranpen barritzea eta erakargarrien banaketea. Hogar-ean.

MARTIAK 8

DIMA

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 11:00etan, ituriaren inaugurazino; testuaren irakurketea, abestia eta alkarteakaz topa. Andren Parkean.

IGORRE

09:30etik aurrera, txirrindularitza eskolen Udaberri Kopako lehenengo lasterketea. Olabarrin.

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 12:00etan, Arratiako Mugimendu Feministak deitutako manifestazino eta ekitaldia. Kultur Etxetik.

Zinea. 17:00etan, *Frankie y los monstruos*; 19:30ean, *La chica zurda*.

ZEBERIO

12:00/12:30ean, Andra Langilearen Nazinoarteko Eguneko elkarretaratzea, *Sei emakumeren testigantza, iraganeko Zeberio ulertzeko* dokumentalaren proiektzinoa eta mokadutxoa.

MARTIAK 9

ARTEA

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 18:30ean, *(Des)kontrolatuta?* antzezlan. Kultur Etxean.

BEDIA

Martiaren 18ra arte, *Lehen sorospenak* tailerrera (aprilak 20 eta 27) izen-emotea. Informazino gunean 16:30etik 19:30era.

MARTIAK 10

IGORRE

19:00etan, M17 greba orokorrerako batzorde arratiarraren bilerea. Kultur Etxean.

ZEANURI

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, *Ahizpatasunaren hariak* dokumentalaren proiektzinoa, Mazalak-en eskutik. Kultur Etxean.

MARTIAK 11

ARTEA

18:00etan, 6-9 urte bitartekoentzako Irakurketa Kluba. Liburutegian.

18:00etan, *La vida es eso* pelikulearen proiektzinoa eta solasaldia Maite Artabegaz. Kultur Etxean.

LEMOA

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, *Migrad@s sin fronteras: visibilizando las violencias contra las mujeres inmigrantes en situación administrativa irregular* erakusketearen aurkezpena. Kotxepin Kultur Etxean.

MARTIAK 12

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, Zaztaparrak Asti Taldearen Lekeitioko udaleku itxietarako matrikulazino. Kultur Etxean.

begitu 467
2026ko martiaren 3a

18:00etan, M17 greba orokorrerako gazte batzordearen bilerea. Kultur Etxean.

MARTIAK 13

ARTEA

16:30ean, Korrika muralaren margoketea; 18:30ean, Euskereagazko Konpromesua ekitaldia; 19:00etan, kantu-pintxo.

AREATZA

19:00etan, XXIII. Laburbirako filmen proiektzinoa: *Olentzerori eskatu nion, Erreka zoko hortan, Fischy, A-maniki, Geratzen den hori, Orain zer?* eta *Hortzikara*.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, Zaztaparrak Asti Taldearen Lekeitioko udaleku itxietarako matrikulazino. Kultur Etxean.

19:30ean, Mendi Film Festivalaren Mendi Tour saioa: *Aldabide, Dear Superhero, Into Altai* eta *K2 Mon Amour*. Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan, *Itzali eta piztu* bertso-saio musikatu elektronikoa. Kotxepin-en.

ZEANURI

19:30ean, kantu-poteoa 11 Kantu taldeagaz. Txoko Sagamatik hasita.

ZEBERIO

18:00etan, maskulinidade toxikoari buruzko tailerrak (bat 10-12 urte ingurukoentzako eta bestea gurasoentzako). Eskola Zaharrea.

MARTIAK 14

AREATZA

10:30etik 14:00etara, ekoizle eta artisauen azokea plazan; 13:00etan, Areatzako Bandaren kanta jaia, Arratiako Musika Eskolako abesleakaz. Udaletxeko arkupeetan. 21:00etan, llientiaren kontzertua. Bixerren.

BEDIA

X. Kolazinoko Mendi Eguna. 08:00retan, mendi martxea; 10:00etan, lasterketa luzea; 11:30ean, gazteen lasterketea eta laburra.

UBIDE

16:30ean, Korrika Txikia: pankartak prestatu, herri jokoak, Korrika Txikia herritik, otzarearen zozketea eta txokolate beroa.

ZEANURI

08:00retan, Joko Alaik antolatutako Aguraingo Araia sagardotegira urtekerea.

ZEBERIO

12-17 urte bitartekoentzako Fun Play Park-era urtekerea (izena emon behar izan da).

MARTIAK 15

BEDIA

11:00etan, X. Kolazinoko Mendi Eguneko umeen lasterketea.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Evolution*; 19:30ean, *Turno de guardia*. Lasarte Aretoan.

MARTIAK 16

IGORRE

Literatura Tailerra. 17:00etan, Gorka Erostarberen *Auzokinak* (Elkar, 2025).

MARTIAK 17

BEDIA

18:00etan, adinekoentzako gizarte-baliabideen gaineko berbaldia: Etxez etxeko zerbitzuak, eguneko zentroak eta egoitzak, autonomia sustatzeko programak, jarduerak eta laguntza ekonomikoak. Eskoletan.

MARTIAK 18

IGORRE

Zinekuba. 20:00etan, *Memorias de un cuerpo que arde* (Antonella Sudasassi, 2014) pelikulearen proiektzinoa. Lasarten.

ZEANURI

20:00etan, Sweet Winds taldearen kontzertua eta gero, poteoa. Kultur Etxean.

KOMIKI A

Iman Olatu



DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako
EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta
gastuak konpartiduteko. Telefonoa
690 307 910.

**KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA
DODAZ**

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatueta ordu biz. Deitu: 638 889 851.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak
emoten dodaz adin guztietarako.
Igorreko Kiñu Gaztetxean.
Interesdunek deitu 664 303 528
telefonora edo idatzi [a.harillo.gracia@
gmail.com](mailto:a.harillo.gracia@gmail.com) helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari
bi behar dira astegoienetarako.
Interesdunek tabernan bertan
galdetu, axularke@gmail.com
helbidera idatzi edo telefonoz deitu:
94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora
Esploratzailearen marrazkiekaz.
Lauzpabost urteko umearentzat.
Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta
atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera
eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko
deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta
lesbianagai bila. Edadeko andrea zara
eta aisialdirako edota militantziarako
espazio ez-hetero baten bila zabilzu?
Deitu edo bialdu mezua 608 062 592
zenbakira.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeko garaje-plazea
alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta
auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi
634 448 820 telefonora.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat *begitu@begitu.eus* helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera ZtandaP ikuskizunerako.

2
Kotxepin Kultur
Etxeak emondako bina
sarrera Itzali eta Piztu
ikuskizunerako.

Alasne Artetxe (Artea)
Montse Petralanda (Zeberio)



Oihane Goioaga (Bilar)
Idoia Zuloaga (Areatza)



**Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,
zozketetan
sartuko zara.
BEGITUk 23
urte eta
ehundaka
lagun.**



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARIANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00



BEGITU

**Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
*inigoirua@begitu.eus***

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Platzan dago jabetza

- Salmentan zein alokatuan
- Lurrik (erakitea, landat, basoa...)
- Etxebizitzak (suaok, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lanor konpartisiak
- Publikoak...
- Balerazkoak

Bider dago proiektuak

[Irakur berriak erakitzeko
Emaizomak
Aktibitate-proiektuak]

-Bare diseinua
-CEE eta ITE-ak
-Hirigintza oharikaritzak
-Negozioak irekitzeko kudeaketa



arratia INMOBILIARIA

Lehendakari Agneta 22. berrera - 9784

Agnesak 74 432 51 89 - 432 74 31 31

Agnesa 011 711 00 00 00 00 00 00 00

webbake 475 725 120

arratia@arratia.es | info@arratia.es

Lehendakari Agneta 22. berrera - 9784

Agnesak 74 432 51 89 - 432 74 31 31

Agnesa 011 711 00 00 00 00 00 00 00

webbake 475 725 120

arratia@arratia.es | info@arratia.es

Kili~Kili
Ampegi eka Puerikultura
Lehendakortzi Agirre 10 - IGORRIE (Biskaiak)
Tel.: 94 479 43 61



Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho 

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bidaia

☎ 94-673-70-87
☎ 609-79-40-54

Olaetxe
OPTICA OPTICA

Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gaituta
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es


ASESORÍA
Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

BESTE MUNDU BAT

feminismotik

Zapalkuntza sistemen aurrean:
antolakuntza eta borroka

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

M8

MARTXOAK 6 Marzo - **BEDIA** Elebiduna

Andrentzako ileapaindegi zoroa
eta kafea +18

Aldez aurretiko izen-ematea. Udala
Previa inscripción. Ayto de Bedia

🕒 16:30-18:30 📍 BEDIAKO ESKOLAN

MARTXOAK 7 Marzo - **IGORRE** Euskaraz

“ZTANDAP” Mirari Martiarena
Antzezlanak Idola Torregarai
Teatro

🕒 19:30 📍 LASARTE ARETOA

MARTXOAK 8 Marzo - **DIMA**

ITURRIEN INAUGURAZINOA ANDRAN
PARKEAN: Testuen irakurketea,
abestia eta alkarteekaz topa.

🕒 11:00 📍 ANDRAN PARKEA

MARTXOAK 10 Marzo - **ZEANURI**

“Ahizpatasun hariak”-
Matazak indarkeria matxistaren aurka
Dokumentala - Euskaraz

🕒 18:00 📍 KULTUR ETXEA

MARTXOAK 6 Marzo - **ARANTZAZU**

BERTSO POTE FEMINISTA

🕒 20:00

📍 MONTERON ETA HERRIKOAN

MARTXOAK 7 Marzo - **AREATZA**

BERTSOLARIAK BALKOITIK BALKOIRA

Ane Labaka Ostein argazki
Oihana Bartra herrikoia

🕒 12:30 📍 GUDARIEN PLAZA

MARTXOAK 9 Marzo - **ARTEA** Euskaraz

“(Des)kontrolatuta?” karmele Larrinaga,
Iratxe Urkiaga
Itziar Ituño

Antzerki laburra eta tertulia

🕒 18:30 📍 ARTEAKO KULTUR ETXEA

MARTXOAK 11 Marzo - **LEMOA** Gaztelaraz

“Irregularitasuna, indarkeria anitza eta
deszentralizatua da”

“Visibilizando las violencias contra las mujeres
inmigrantes en situación administrativa
irregular”

ERAKUSKETA Exposición (11-26)

🕒 18:00 Aurkezpen saioa

📍 KOTXEPIN KULTUR ETXEA

Presentación
MIGRAD@S SIN
FRONTERAS

MANIFESTAZIOA ETA EKITALDIA

12:00etan, IGORREKO KULTUR ETXEAN



ARRATIKO
MUGIMENDU
FEMINISTA

